

III. Urte Barri Oi! jaialdia urtailean

Kaos Urbano talde madrildarra eta Fitoskins, Attürri, No Limits, MadSkins, Nekktar eta Aurrez Aurre euskal taldeak igongo dira Igorreko Kiñu Gaztetxeko oholtzara urtailaren 17an, arrastitik hasita. Gero, jaiagaz segiduteko DJ ChicasBeat-ek ipiniko dau musikea ordu txikietara arte. Sarrerak salgai dagoz daborduko Igorreko Axular Herriko Tabernan hamabost eurotan eta erritmo onean doa aurrealmentea. Igaz sarrera guztiak agortu ziran, 600. **21. orrialdea**



Sartu gara Gabon sasoian



Batzuk oporretan eta beste batzuk ez, baina danok gozatzeko moduko jarduera zerrenda potoloa antolatu da Gabonetarako. Gabonetako kontzertu eta kantaldiak, Olentzero eta Mari Domingiren harrerak, San Silbestreak eta umeentzako ekintza klasikoak izango dira protagonista. Oporraldia aprobetxautu, antzerki, berbaldi, ipuin-kontaketa eta kontzertu asko be antolatu dira. **6. eta 7. orrialdeak**

Aritz Bengoa eta Imanol Iturriozegaz alkarrizketea



Ubidezarrak fabrikako lanak itxi eta ahuntz gaztaia ekoiztu-ten hasi dira, Giberri izenpean. Momentuz, ehun bat alpina frantses ahuntzegaz hasi dira lanean eta "erraz jateko gaztai bat, fina, publiko guztientzakoa" egitea lortu dabe. Ahuntzakaz betidanik ibili badira be, proiektua gorpuztuteko traba burokratiko ugari topau ditue bidean eta lehen sektorearen egoeraz be egin dabe berba. **10. eta 11. orrialdeak**

ZEANURI

Sabin Intxaurregarri omenaldia

Oin hamabost urte hil zan Sabin Intxaurrega (Zeanuri, 1949) eta abenduaren 20an, omenaldia egingo jako jaioterrian. Intxaurrega frankismo osteko lehen alkatea izan zan Zeanurin EAJgaz eta Carlos Garaikoetxeagaz politika nazionalera saltu egin ostean, Eusko Alkartasuna alderdian sortzaileetakoa izan zan 1986an. **9. orrialdea**

UBIDE


La Unionen zerbitzua berrezartea eskatu dabe Ubiden

Otxandio-Ubide-Legutio eskaripeko autobus zerbitzua begi onez ikusi daben arren, ubideztarrek La Unionen autobusa herrian geratutea eskatuteko sinadura bilketea egin dabe. Batu diran 62 sinadurak Arabako Foru Aldundira bidali dira. **9. orrialdea**

ARRATIA

Kazetari barria BEGITUko erredakzinoan

Bea Azpirik erretiroa hartu ostean, BEGITUk kazetari barria hautatuteko prozesua hasi eban eta hau amaituta, Ager Barragan billaroztarrak dala lantaldeko kide barria. Oin dala lau urte hasi zan BEGITUko digitalizazio prozesua eta Barragan, hau indartu eta beste bultzada bat emotera dator. **5. orrialdea**



Literatura txokoa

LA SOCIEDAD DEL CANSANCIO

Byung-Chul Han-en (filosofo alemana, Hego-Korean jaioa) liburuetan gizarte kapitalistea eta bereziki horren bersino neoliberala gogor kritiketan da. Liburua, laburra izanda be, hain maminsua da ze gure arreta osoa eskatuten deuskun. Gaur egun, liburuan bertan adierazo bezala, zaila dan gauzea da, izan be gure arreta-denporea eta sakontasuna izugarri mehaztu da, sare sozialan erabilera dala-ta.

Han-en liburua ikerketa filosofiko/soziologiko bat da, gaur egungo osasun mentalen arazoei buruzkoa. Esaterako *burnout*-a (errekuntza edo egonezin sakona), ansiedade eta depresinoa.

Han-ek dino atzen hamarkadetan, gure mendebaldeko gizarte

aurreratuek paradigma aldaketa bat jasan dabela. Aurreko "diziplina-gizartetik" -kanpoko agindu eta debekuetan oinarritutakoa- "lorpen-gizarte" bihurtu jaku, non gizabanakoak norbere burua usiatzen saiatzen diran (etenbarik sustatuten da "norberarentzat" lan egitea). Holan, klase-burrukea saihesten da; beharginak ez dau ugazaba batentzat lan egiten, eta lan eskubideen aldeko burrukea edo "norberaren aurkako" grebak zentzubako bihurtu dira. Lehen ("diziplina-gizartean") arauak hausteak zigorra ekarten eban, oin, "lorpen-gizartean", norberaren gurak ez beteteak frustrazinoa dakar. Horren ondorio psikologikoen artean nekea, asperdurea eta axolabakokeria

dagoz, eta eragin psikiatrikoen artean hainbat sindrome: hiperaktibitatea, pazientziarik eza, arreta faltea eta errekuntzea. Holan, "lorpen gizarteak" jai-espirituari, bizitzaren ospakizun hutsari, uko egitea eskatuten deutso. "Lorpenen gizarte" honetan gure buruaren nagusi eta esklabu bihurtu gara, Han-en ustez.

Guzti honeri buruzko dokumentala Youtuben dago ikusgai, non gure medebaldeko gizarte honen norabide kezkagarriak erakusten jakuzan.

Josu Ricoy



Byung-Chul Han
La sociedad del cansancio
Herder, 2012 (liburua 2010ekoa da)
80 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Abenduaren 15etik 21era
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (13-19)

Abenduaren 22tik 28ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (20-26)

Abenduaren 29tik urtailaren 4ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. (27-2)
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17
Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin.
Ubide Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean eta 08:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Urko Iurrebaso (Arantzazu, Areatza eta Artea) Jon Mikel Goioaga (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Arratiako gizarteak
ehun gutun baino
gehiago bidali
deutsaz CAFeri
Palestinari buruz

Gitxienez 170 gutun, tartean Arratiatik 100 inguru, CAF euskal enpresara bidali ziran, Jerusalemgo tren-proiektua ixtea eskatzeko.

Nazino Batuen Erakundeak adierazo dauenez, CAF euskal enpresea Palestinako herritarrek jasaten daben genozidiotik etekin handienak lortzean dauzan enpresetako bat da.

CAFek Jerusalemgo mendebaldeko zatia eta Ekialdeko Jerusalemgo legez kanpoko asentamentuak lotzean dituan tren arinaren hedapenean parte hartzean dau, nahiz eta lurralde horreek legez palestinarrenak izan. Holan, CAFek apartheid gero eta bortitzago baten partaide egiten dau bere burua, eta nazinoarteko legediaren aurka jokatzan dau.

Jerusalemgo tren arina hain da legez kanpokoa, ze lizitazioaren hasikerako fasean parte hartu eben beste multinazional batzuk –Alstom, Siemens, Systra, Bombardier edo Macquarie, besteak beste– erretirau egin ziran.

Ondorioz, Palestinagaz alkartasuna adierazoten daben arratiar askok zer egin daitekeen galdetu dabe. Ez da erraza, baina presino publikoak funtzionetan dau.

Adibidez, Veolia enpresa multinazionala Jerusalemgo tren arinaren proiektutik eta Israelgo beste operazino batzuetatik erretirau zan presino publikoko kanpaina baten ondorioz. Baina, beharbada, presino publikoagaz lortu daitekeenaren adibiderik garrantzitsuena apartheidaren kontrako mobimentua da, 1992an Hego Afrika askatzen lagundu ebana.

CAFeri idatzitako gutunetan, Arratiakoek NBERen eskaerak errepikatu dabez:

"a) Berehala etetea Palestinako herriaren aurkako giza eskubideen urraketak eta nazinoarteko krimenakaz lotutako merkataritza-jarduera guztiak; b) Palestinako herriari erreparazinoak ordaintzea [...], Hegoafrikako post-apartheid ereduaren antzera".

Horrezaz gainera, gogorarazo dabe NBEk Nazinoarteko Zigor Gorteari eta podere judizialei eskatu deutsela CAF bezalako enpresak ikertu eta epaitzeko: alde batetik, nazinoarteko krimenetan parte hartzeagatik, eta bestetik, krimen horreen zuriketeagatik.

Oin, inoz baino gehiago, presinoari eutsi beharra dago. Zoritarrez, ustezkoa dan bake akordioak ez dau genozidioa gelditu; hedatu baino ez dau egin.

Akordioa sinatu zanetik, Gazan hil dabezen 300dik gora palestinarrez gain, Zisjordaniako palestinarrek kolonoen eta estaduaren indarkeria tasarik handienak jasaten dabiz atzen aldian.

KAREN LUYCKX

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeru, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Bidaure Elkartea

Bidaure Elkartea genero indarkeriaren biktima izan diran ume eta nerabeen babeserako bideratutako erakundea da. Arratian dauka egoitzea, baina bere jardunak Euskal Herri osoan dauka eragina, lurralde desbardinatoko indarkeria matxistearen biktima diran amek, haurtzaroan sexu-indarkeria sufridu eben andrek eta gizarte eta hezkuntza arloko profesionalek osotzen dabelako.

Helburu nagusien artean dagoz ume eta nerabeen eskubideak defendidutea, adin txikikoak indarkeria matxistearen biktima zuzen moduan aitortzea, eta indarkeria horren existentzia eta ondorioen inguruko gizarte-konzienzia sustatzea.

Helburu horreeak lortzeko, Bidaurek sensibilizazino eta ikusgarritasun jardunaldiak antolatzen ditu, ikerketa lanak garatzen ditu, arazoari buruzko informazino espezializaua zabaltzen dau, eta amen komunidade bat be badauka, laguntza, babes eta espazio seguruak eskainiz.

ERETXIA

Pantaila
nazinoen
tirania

Urri bigarrenaren erdikaldeko egun baten, Igorreko komertzio baten ordaintzeko kreditu-txartelagaz arazoak nituela, beste bezero bat heldu zan, herriko beste merkataritza-gune batzutan gauza bera gertatzen ebilela eta Amazon "erori" zalako zala esanez. Une horretan neure buruari galdetu neutsan ea ze zerikusi eukan Amazonek komertzioaren datafonoagaz (holan ezetuten da txartelagaz ordaintzeko aparatua). Hurrengo egunean, prensako informazino baten topau neban erantzuna: "Amazon Web Services (AWS), munduko hodeiko zerbitzari sare handienak, arazo teknikoak izan zituen Estatu Batuetako bere datu-zentro baten, eta zerbitzu barik itxi ebazan mundu osoko milaka sare sozial, joko-plataforma, informatika-sistema, webgune eta aplikazino".

Internet menperatzen daben plataforma indartsu horreekanako menpekotasunaren adibide txiki bat baino ez da.

Urri bigarrenean irakurri neban, bide batez, ezinbestekoa iruditzen jatan liburu bat, plataforma horreek zelatan gobernatzen daben Internet ulertzeko, eta horregaz batera, mundua giza osasunerako eta demokraziarako arriskutsua dan etorkizunera, orainaldira, bideratzen daben ulertzeko. *La tiranía de las naciones pantalla* (Akal argitaletxea) Juan Carlos Blancoren liburua da.

Eta, zeintzuk dira Internet gobernatzen daben plataforma horreek? Adimen Artifizialaren jaube barriek horreetako batzuk lekualdatu arte, Amazon, Google, Meta, Apple, Twitter (X), Microsoft... dira enpresa teknologiko nagusiak, eta "horreetako batzuen BPG planetako herrialde gehienen baino handiagoa da".

Liburu honetan, egileak plataforma horreek egiten dabezan "bost pekatu nagusiak" aitatzan ditu, Europar Batasuna bezalako estaduetako edo nazinoz gairdiko gobernuen kontrolari iges egiten deutsienak. Honeek dira kontrolrik bako abusu horreek:

LEHEN PEKATUA. Gure pribadutasunaren urraketa masiboa. "Enpresa horreek, euren negozio-ereduek bultzatuta, pribadutasuna alde batera itxi, guri buruzko gero eta datu gehiago bildu eta zaintza-



BERNA GÓMEZ EDESA
Militante ekosoziala

eredu gehiago biltzean dabez". "Nazino pantailak gure bizi portaera iragarteko dagoz, gero paketatuta eta iragarleei saltzeako". Horregaitik, dana ezetu behar dabe gutaz. "Gure itxikeria aprobetxatzen dabe gure bizitza personalaren barru-barruan sartzeako. Aplikazino baten atzen klausulara arte irakurten dauan herritarra ez da existitzen".

BIGARREN PEKATUA. Arretarik ezaren eta distrakzioaren pandemia. "Gure terminalen eragin hordigarriak harrapauta gagoz, gure arreta harrapatzen dabelako eta entretenigarriago sentiarazoten gaituelako, baina baita hareengan konzentrauago eta besteengandik fisikoki deskonektuago be. (...) Gure pantailetan praktikatzen dogun *scroll*-ganako menpekotasuna dogu, gure aisialdiko orduetarako mobikorraren menpe gagoz, eta abusu horrek nariadura orokorra eragiten deusku arreta emoteko eta konzentretako gaitasunean". "Plataforma teknologikoez drogazaleen mundua sortu gura dabe, hareek izango dira-trafikatzailak". Txostenen arabera, Espainiako estaduan, egunean, batez beste, 5-7 ordu pasetan doguz mobikorra konsumiduten". "Heltzean dabizana belaunaldietan egiten dau kalterik handiena, eguneko 24 orduetan ondo pasetako diseinutako gizarte-plataformen biktimak dira-ta, baita hareen osasun mentalaren kontura be".

HIRUGARREN PEKATUA. Desinformazinoaren hedapen mugarikoa. "Pantaila-nazinoek ez dabe pentsamentu kritikoa baztertzen, baina zampaketa-metodoaren bidez zokoratzen dabe. Informazino zehatz baktzeko, 10, 15 edo 20 albiste faltsu topetan doguz; analisi kritiko baktzeko, hamamaka titular zirrargarri eta sensazionalista, egileen irabaziak handitzen dabezanak". "Guzurra egia baino azkarrago hedatzen da, karga emozional bat izaten dau-ta, jaurtiketa birtuala eta pantailetan partekatutako sumindura eragiten dauana, gure ansiedadeak eta haserreak botaka egiteko aukera emoten deuskuna, baita anonimotasunetik be". Maila politikoan, adibide argiak dira Trump,

Bolsonaro, Milei, Bukele, Alvise...

LAUGARREN PEKATU NAGUSIA. Komunikabideen suntsiketea. "Birtartekorik bako gizarte ez da gizarte demokratikoa. Eta sare sozialen bidez bakarrik informatzen dan gizarte batek boto-paper guztiak ditu, non informazino eta eretxia podere eremuetatik pentsamentu kritikoa eta eretxi diskordanteak baztertu arte kontrolatzen diran. Paradisua totalitarioentzat eta sektarioentzat". "Europar mobiduten diran publizidadeko hiru eurotik bi Googlera eta Facebookera erortzen dira, eta euren publizidadeko medio nagusiak TikTok, Amazon, Netflix, Uber... dira". "Informazinoaren autobideak albiste beteten dira, eta biraltasuna nagusitzen da kalidadearen gainetik. Algoritmoen diktadurea da. Albiste serioak informazino itxurako morrila tonakaz batera agertzen dira". Erroka handia da komunikabide tradizionalentzat eta arazoaren garrantziaz jaubetzen diran herritarrentzat.

BOSGARREN PEKATU NAGUSIA. Denda txikien suntsipena. "Hurbiltasun-merkataritza pantaila-nazinoen nagusitasun-posizinoen biktimetako bat baino ez da. Plataforma handiek banaketa bideak gehiegi erabiltzen dabez eta ez tul egin gura dauanaren sormena eta finantza-muskulua itoten dabez". "Agian produktu batzuk ekarten deutsuez etxera, eta inguruko denda baten erosi daikezuz. Eta hori egiten badozu, denda horrek ez dau itxiko eta lana emongo deutse zuk agian ezetuten dozuzan personei".

Hori aitaturako liburuaren laburpen txiki eta gatxa da, eta, barriro di-not, ezinbestekoa iruditzen jata gaur egungo dinamika sozial eta politiko asko ulertzeko. Byung-Chul Han Asturiasko Printzesa sariak esan dauan bezala: "*Smartphone*ak gu erabiltzen gaitu, eta ez alderantziz, bere produktua gara". Edo Mirene Beriain Altza Burua mobimentu interesgarriko kideak Gara egunkarian ointsu idatzitako artikulua baten planteatzen dauan bezala: "Onuraren benetako ebidentzia barik, ikasgelak gailuz bete dira, eta, teknologiak pedagogiara egokitu beharrean, pedagogia moldatzen saiatzen dabiz teknologiaren eskakizunetara".

Hau da, liburuaren amaieragaz amaituz: bizitza mobikorraren bost hazbeteak baino askoz harago doa; ez gara mundura etorri teknologia batek zer egiten dozun jakin dagian eta holan zuk iragarki bat jaso; demokrazietan guk aukeratutako ordezkariak agintzen dabe, eta ez algoritmoek edo hareen atzean dagozan personek. Teknologia personan eta guztion ongiaren zerbitzura egon behar da, ez jaubeek emoten deuten podereaz abusetako.



LUMATUTEN



ILIA MITXELENA

Suerte eta zorigatxa

Suerte eta zorigatxa dauka-daz, maite dodan zeozer-tan lanean nabilelako. Tristuraz ikusten dot zelan lanbide artistiko edo sortzaileetan hasi ziran lagun eta ezagun askok, segurtasun ekonomiko eta lan-eskubide hobeagoakaitik lehengo lanak itxi dabezala, hunkituten ez dabezan lanak hartuz. Gure ofizio frikiakaz jarraitzen dogun askok, minak, begi-zuloak eta nekeak pilatuten doguzala be, tristetu egiten nau. Lan ordainduei buruz idazten dot, eta bailarako lan adinean gagozanok oro har bizi dogun posizino pribilegiatik; inoz ahaztu barik etxetik kanpo lan egitea aukeratu ezin dabenak (gura badabe be), edo gaixotasun edo errealdade gordinengaitik lan egin ezin dabenak; ezta ezelango aukerarik barik lan egitera behartuta dagozanak be, euren biziraupenak beste aukerarik ixten ez deustielako.

Nik lan-bokazinoari eusten deustat, zirrara eragiten deustun hori, zuk dakizun, gura dozun eta egin daikezun hori gizarteari emoteak, behar superfluorik bako gizarte zoriontsuago eta lasaiago bat sortzean dauanaren ideari eusten deustat; non gitxiago eta hobeto konsumiduko geunkean; gure giza harremanak hobeak izango litzatekezan... Egunero ordu asko emoten doguz lanean... lanak esna pasetan doguzan eguneko ordurik onenak eroten ditu. Ez dakigu, bihar bizirik jarraituko dogun... edo urte askotako ordu piloa emongo dogun oindino lanean. Nik ordu horreetan, gizarteari emon gura deustadana egin gura dot. Zuk be hori egin ahal izatea gura dot. Eta, batez be, lanak bizitza lapurtuten deustsen persona horreei lan horreek itxi eta gura daben horretan aritu ahal izatea gura dot. Horretarako, hausnartzeko eta gizarte bezala aldatzeko asko daukagu. Hori bai, aldaketea zure baitan hasi daiteke.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Asfaltoaren beroaz

Inork inoiz bere buruari itaundu dio ea zergatik asfaltoa ez den arrosa kolorekoa? Edo urdin turkesa? Bai politak gero horrelako koloreak! Gure kaleek eta errepideek beste itxura bat, atseginago seguru, izango lukete. Alor horretako adituek egiten duten ikerketa baten arabera, horrelako koloreak erabiliz gero, bihotzekoak izateko arriskua nabarmen gutxituko litzateke; gure bizitza, jeneralean, hobetuko litzateke. Baina ez, asfaltoa beltza, eta noizbait gorria ere, izaten da. Berezkoa zaio belztasuna, petrolioak esleitzen diona. Gorria, ostera, guk geuk koloretasunaren ondrrari emandako oparia baino ez da. Bakarra, berde koloreko asfaltoak ez duelako arrakastarik izan. Horiek koloreak biak indartsuak dira, zirrikiturik uzten ez duten horietakoak. Beltzak den-dena estaltzen du, erruki bakoa da. Gorria, bestalde, bizia da; odola, gerra eta grinaren kolore borrokalaria. Biak ala biak ez daude txantxetarako, kontuz haiekin! Erregarriak dira eta. Horregatik hain beroak dira, beroegiak aukeran. Beltz eta gorri koloreek sua gogorazten digute. Bero handiagoa, gutxi bagina bezala. Udamin partean asfaltoa, dela beltza, dela gorria, pozarren dabilkigu, beroaren gorengo graduan sentitzen du bere burua. Udan, asfaltoak izate osoa bereganatzen du, nortasunaz janzten da, badu izateko arrazoi garbia; beragatik oporraldiak eta bidaiak madarikatzearaino heltzen gara. Txikitari, petrolio tantatxoa baino ez zelarik, zapaldua izateko jaio zen mundura, milaka oinek eta ibilgailuk zapal zezaten. Udan, ostera, are gehiago aurtengo bezalako uda batean, iraultzaile dugu asfaltoa; ez du zapalketa onartzen eta guri eraso egiteari ekiten dio; bera da orain erruki barik zapaltzen gaituena. Horretarako badauka gainera lagun min eli bat, eguzki gupidagabea eta Lurra suntsitzen ari diren gobernu eta multinazionalak. Bero handiagoa. Zapata zolak zelaiaari itsatsita lotzen zaizkigu, izerdi tantak bekokitik behera isurtzen dira eta begiak, beroaren porasuz, deslai eta loka ibiltzen dira batetik bestera; ez dituzte gauzak behar bezala fokatzen, dena lausoago ageri da. Horrelakoa da asfaltozko itsasoa. Hau beroa asfaltoaren erdian!

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

2025a badabil atzean geratuten. Arin ahaztu dogu koronabirusa, bai geuk bai geure agintariek. Oin hiruzpalau urte, "dana aldatu, ezer alda ez daiten" paradoxeari jarraituta, oinarritzko zerbitzu publikoak mantenduta Europako ekonomia berbiztuteko helburua ipini zan. Baina koronabirusa ahaztu eta gerra logika garaian gagozan honetan, berrarmatzea da ekonomia suspertuteko Europa-ren estrategia barria. Atlantikoaren beste aldeko inperioak bultzatutako globalizazioak mesede handiagoa egiten deutso gaur Txinari AEBei baino eta Europa, AEBen eta NATOren babes barik geldituteko bildur, berrarmatzeari ekin deutso, Errusiagazko "disuasino politiken" atxakipean. Mendebaldeko agintariak ez dira ankertasunen bildur, poderea eta merkaduak galtzearen bildur baino. Ez dago Ukraina eta Israel laguntzeko eztabaidarik. Bitartean, palestinarrei mamur gitxi batzuk emonda burua zuritu. Kalean barriz, Palestina da ardurea eta honen aldekoak dira ekimenak. Gerra-dinamika honetatik urten gura bado-gu, kalean ibilitako jentea behar dogu, eta atzean itxi bulego-sator eta komunikazio-guruak.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Itxigaitza Zerbaita: 901
R.P.S. 31/06

ARTEA

Liburu harrera ekitaldia Artean: Miren Edurne Gumuzio Añibarroren lanaren aurkezpena

Erredakzinoa

Arteako Udalak Miren Edurne Gumuzio Añibarro arteztarraren *Las instituciones jurídicas bajo el régimen de las Ordenanzas del Consulado de Bilbao (Siglos XV–XIX)* liburuaren harrera ekitaldia antolatu eban abenduaren 5ean. Udaletxeko batzar aretoan egin zan ekitaldira hamabost bat herritar hurreratu ziran.

Harreraren barruan, dokumentu ofizialaren sinadura burutu zan: Alberto Intxaurreaga alkateak, Edurne Gumuzio egileak eta Udal idazkariak sinatu eben agiria, egilearen lana udal bildumara gehituta.

Ekitaldian, Edurne Gumuziok

berak Bilboko Konsuladuaren historiari buruzko berbaldi laburra eskaini eban. Azaldu ebanek, Konsuladua izan zan Europako eta Espainiako inperioko merkataritza-konsuladuen aitzindari eta eredu, eta haren eragina mende luzetan zehar zabaldu zan. Erakundea 1829. urterarte egon zan martxan, Espainiako Gobernuak komertzioa zentralizetako ebatzia hartu eban arte.

Gumuzioren esanetan, Bilboko Konsuladua izan da Bilboren, Bizkaia-aren eta, orokorrean, euskaldunok mundura aterateko bultzada handiena emon dauan erakunde historiko nagusietariko bat.



ZEBERIO

Etxazo eta Barbatxaoko jaiak ospatuko dira Zeberion hileon

Erredakzinoa

Gehienak udan izaten badira be, Gabon sasoian ospatuten jarraituten dira auzoetako jai batzuk eta holan izango da Zeberion. Abenduaren 26an barikua, sarnestebanak ospatuten dira Etxazon; abenduaren 29an barriz, Santomas Zaharraren jaia egingo da Barbatxaon. Ermiten inguruko jaietan ohikoa danez, bietan ospatuko da mezea eguerdiko 12:00etan eta gero, barauskarria egingo dabe bertan batutakoek.

Horrezaz gainera, Etxazoko San Esteban ermitan mezea entzun eta zeozer jan eta edan ostean, herri kirol erakustaldiak egingo

dira. Ibon Izak egingo ditu aurkezle lanak eta probalari lez, Jose Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola dimoztarrak eta Irati Astondoa zeanuriztarra. Lasto-altxatzea, lasto-botatea, ingudea eta harria egingo dira erakustaldian.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Kazetari barria BEGITUK: Ager Barragan

Erredakzinoa

Hamazortzi urte eta hamar hilebetez, horreetako ia hamabost erredakzinoa berak bakarrik aurrera atera eta gero, Bea Azpirik erretiroa hartu eban, gogo handiagaz eta ondo mereziduta, urri bigarrenaren 29an. Oin arte, BEGITU ezin zan ulertu Bea barik baina ziklo barri baten sartu da erredakzinoa. Amaiur Irazabal igorretarrak hartu eban lekukoa hilebetez eta oin, Ager Barragan billaroztarra geldituko da mugabakoz gure Arteako bulegoan, Asier Abrisketa igorretarragaz.

Lantalde gazteak osotuten dau beraz BEGITUKO erredakzinoak, 27 eta 28 urte hurrengo hurrengo. Oin dala lau urte hasi zan BEGITUKO digitalizazio prozesua eta Barragan, hau indartu eta bultzadea emotera dator oin. Beti be



kazetaritzearen oinarrietatik abiatuta, paperezko aldizkaria, *begitu.eus* webgunea eta sare sozialak Arratia, Ubide eta Zeberio-ko informazioagaz bete bakarrik ez, irakurleoi hurreratuteko konpro-

misoa hartu dau lantalde barriak: informazio hurbilago eta lehen eskukoa, ikus-entzunezkoetan hobetu eta gehiago egitea eta sare sozialen kudeaketan aurrera egiten jarraitutea.

DIMA

Hilaren 16tik 21era egingo da Dimagia jaialdia

Sei egunez, egunero egongo dira magia tailer eta ikuskizunak Diman. Gainera, magiaren gaineko erakusketa bi egongo dira ikusgai.



tuteaz gainera, heldu zein umeek izango dabe Abaroa aretoa Hogwarts bihurtutako aukerea. Hilaren 16an eta 18an, martitzen eta eguen, Tor magoak ume zein helduentzako magia tailerrak eskainiko dauz Abaroan arrastiz. Ikasitako trukuakaz, tailerretako parte-hartzaileek emonalditxo egingo dabe bariku arrastian. Dimagiak iraun bitartean, *Magiako kartel historikoak* eta *Historiako magorik handienak* erakusketak be egongo dira ikusgai Abaroan.

- Abenduak 16, martitzena**
17:00etan, haurrentzako magia tailerra Tor magoagaz eta 19:00etan, helduentzako magia tailerra Tor magoagaz.
- Abenduak 17, eguaztena**
17:30ean, Arratiako Magoen Topalekua: *Txoko magikoak*.

Abenduak 18, eguena
17:00etan, haurrentzako magia tailerra Tor magoagaz eta 19:00etan, helduentzako magia tailerra Tor magoagaz.

Abenduak 19, barikua
18:30ean, tailerretan parte hartutakoen emonaldia; 19:00etan, Tor magoaren emonaldia eta 21:30ean, Alain magoaren *Hil edo ez hil*.

Abenduak 20, zapatua
12:30ean, Walas magoaren *Gertutik ikusteko magia*.

Abenduak 21, domekea
17:30ean, Edu magoaren *Zu zara magoa*.

Erredakzinoa

Nagusi zein txikerrenentzako sei egun magiko eta sei mago. Hori da aurtengo Dimagia magia jaialdiak abenduaren 16tik 21era emongo dauan eskaintzea. Urtero lez, Arratiako Magoen Topalekua izango da zita garrantzitsuenetakoa, hilaren 17an izango da Run Run mago

arteztarraren eta Aritxoi eta Walas mago dimoztarren eguna. Beste alde batetik, Tor eta Edu magoek be euren emonaldiak egingo dabez publiko guztientzako eta Alain magoak barriz, heriotzearen eta dolauren inguruko *Hil edo ez hil* hamasei urtetik gorakoentzako saioa taularatuko dau.

Zuzeneko emonaldiakaz goza-

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gabonak herrian gozatuteko egitarau potoloak antolatu dabez gure eremuko udal eta alkarteek

Bertan daukaguz Gabonak eta opor luzeak zein jaiegun solteak izan, jarduera askotaz gozatuteko aukerea egongo da Arratia, Ubide eta Zeberion. Kontzertu eta kantaldiak, Olentzero eta Mari Domingiren harrerak, San Silbestreak eta umeentzako ekintza klasikoak izango dira aurten be protagonista, familia eta kuadrilla bakotzeko urteroko zitez gainera.

Erredakzinoa

ARANTZAZU

Abenduak 24, eguaztena
12:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri abestu.
13:00ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea. Herriko plazan.
18:00etan, 564 kantea abestu. Eleiz portalean.

Abenduak 27, zapatua
16:00etan, Sansilbestrail mendi lasterketea.
21:30ean, Santa Barbara taldearen kontzertua. Herriko Tabernan.

Abenduak 28, domekea
18:00etan, *Gau bat Barry Manleyrekin* bakarriketea, Barry Barrez umoregilearen eskutik. Kultur Gunean.

Abenduak 29, astelehena
3-17 urte bitartekoentzako urtekerea BECeko UGP-PINera. Izen-emotea abenduaren 23ra arte, udaletxean. HHkoak gurasoakaz joan behar dira.

Urtailak 2, barikua
18:00etan, jubiladuentzat bingoa Kultur Gunean.

AREATZA

Abenduak 20, zapatua
09:30ean, Turroi eguna, bazki-deentzako. Ubide-Siskina-Harrikurutze koba-Ubide (izen-emotea abenduaren 17ra arte 627 021 082 edo 653 018 167 telefonoe-tan). Eleiz portaletik urtenda.

Abenduak 23, martitzena
19:00etan, *Palestina: aliantzak eta estrategiak genozidioaren aurrean-Palestina: alianzas y estrategias frente al genocidio*. Gurutze Morado Ibargutxiren (Sumud Global Flotilla) eta Reem Dandan-en (Palestinarekiko Erantzukizuna Plataforma) berbaldia. Elebitan.

Abenduak 24, eguaztena
17:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.



Abenduak 28, domekea
18:00etan, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren bigarren emonaldia. Udaleko Areto Nagusian.

Abenduak 30, martitzena
19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz. Eleizan.

Abenduak 31, eguaztena
11:00etan, hamaiketakoa, argazkia eta bideoa Urrekoatxan (09:30ean, eleiz portalean igoten ez dakienentzat).
17:30ean, IV. San Silbestrea plazan hasita.

ARTEA

Abenduak 19, barikua
19:00etan, Gabon kantak, Mikel Deuna Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta.

Abenduak 24, eguaztena
17:00etan, plazan batu eta auzorik auzoko kantaldia.
19:00etan, harrerea Olentzero eta Mari Domingiri.

Abenduak 27, zapatua
17:00etan, orientazino proba herrikoia.

Abenduak 28, domekea
12:00etan, Aritxoi magoa. Herriko Bentan.

Abenduak 29, astelehena
10:00etatik 18:00etara, 2013-2020 bitartean jaioetakoentzako urtekerea UGP-PINera. Izen-emotea abenduaren 19ra arte udaletxean.

Abenduak 31, eguaztena
Gabon Zahar gaua, 01:00etatik aurrera. Herriko Bentan.

BEDIA

Abenduak 16, martitzena
19:00etan, Arratiako Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. Eleizan.

Abenduak 17, eguaztena
17:15etik 18:45era, Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra. Ludotekan. Gero, kalean apaingarriak herritarrei banatu.

Abenduak 19, barikua
17:30ean, Gabon postalen zein birziklautako materialakaz egindako Gabon zugatzen erakusketea. Plazan; 18:00etan, Gabon postalen zein birziklautako materialakaz egindako Gabon zugatzen lehiaketetako sari banaketak. Plazan eta 19:00etan, Gabonetako argiak isiotu, txoripana, edariak eta musikea. Plazan.

Abenduak 22, astelehena
17:30ean, Amaia Egidazu ipuin kontalariaren Gabonen gaineko *Liburu maleta ibiltaria*. Ludotekan.

Abenduak 24, eguaztena
13:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea eta gaztaina erreak. Plazan.

DIMA

Abenduak 18, eguena
18:30ean, Rafa Ugaldere *Hizkuntzak hiltzen direnean* berbaldia. Jubiladuen lokalean.

Abenduak 22, astelehena
Mendi martxea, Sopelatik Plentziara.

Abenduak 23, martitzena
Arrastiz, Ludotekea margoztu.

Abenduak 24, eguaztena
17:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea. Eleizan hasita.

Abenduak 26, barikua
18:00etan, Bea Egizabalen *Gregoria* feminismoaren gaineko bakarriketa umoretsua. Eskolako kamaran.

Abenduak 27, zapatua
12:00etan, Txipli Txapla Otxotea koruaren kantaldia. Piedadeko ermitan.

Abenduak 31, eguaztena
09:30ean, mendi tontorretako buzoiak, Arrietabasora urtekerea. Olarretan hasita. (Eguraldi txarra egin ezkeru bertan behera).

Urtailak 2, barikua
Izotz pistara urtekerea (4-18 urte bitartekoentzat).

IGORRE

Abenduak 17, eguaztena
18:00etan eta 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua. Lasarte Aretoan.

Abenduak 20, zapatua
19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua. Lasarte Aretoan.
Arratiako Frontenis Txapelketako

partiduak. Kiroldegian.

Abenduak 21, domekea
Arratiako Frontenis Txapelketako partiduak. Kiroldegian.

Abenduak 24, eguaztena
12:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren kalejirea eta harrerea. Garbetik hasita.

Abenduak 26, barikua
17:30ean, *Amama: irrifarreen ondarea* umeentzako antzezlan. Lasarte Aretoan.

Abenduak 27, zapatua
19:30ean, *La llamaban loca* antzezlan. Lasarte Aretoan.

Abenduak 31, eguaztena
11:00etan Igorreko XVI. San Silbestrea, Goiko Plazatik hasita. 11:00etan, izen-emotea; 11:30ean, urtekerea; 12:30ean, oparien zozketea.

LEMOA

Abendua
Hilaren 24ra arte, 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, Olentzero eta Mari Domingiri gutunak bidaltzeko postontzia. Kotxepin Kultur Etxean.

Abenduak 17, eguaztena
18:30ean, *Gabonetako bitxikeriak* ipuin kontaketea. Kultur Etxean.

Abenduak 19, barikua
19:30ean, Gabonetako poteoa. Skapaie Elektroxaranga. Txoanetik.

Abenduak 24, eguaztena
10:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea. Udaletxean.
18:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea. Karabie Gaztetxean.

Abenduak 26, barikua
19:00etan, *Sorgina banaiz* dokumentala Asisko Urmenetagaz. Karabie Gaztetxean.



IGORRE

Familia nuklearraren
 gaineko eztabaidea
 biztuko dabe Orratzak eta
 Haginke taldeek

Abenduaren 26an gaiaren gaineko solasaldia, afaria eta jaitxoa egingo dira Kiñu Gaztetxean.

Erredakzinoa

Gabonak familian egoteko sasoia ei dira baina familia-ereduak aldatuten dabizan garai honeetan, familia tradizionala ezbaian ipinteko jardunaldia antolatu dabe Orratzak Arratiako neska* gazte feministen taldeak eta Haginke Arratiako gazte transmaribibolloen erakundeak. Afari antinuklearra izenpean, abenduaren 26an izango da familia nuklearraren -ezkondutako aita eta ama eta honeen seme-alabek osotutakoa- gaineko eztabaidea sustatuteko eta alternatibak



azaleratuteko jardunaldia.

Hilaren 26an Igorreko Kiñu Gaztetxean batuko dira gazte feminista, transmaribollo eta gaiagaz interesauta dagozanak, 19:30etik aurrera. Hasteko Orratzak eta Haginkeko kideek *Familia nuklearra ezbaian: biziteko beste modu batzuk irudikatuten* solasalditxoa manteniduko dabe. Honen ostean, 21:00etan, izango da afaria gaztetxean bertan; txartelak Axular Herriko Tabernan dagoz salgai 10 eurotan. Afaria amaituta, afaloste umoretsua egingo da eta 23:00etan, MJ Lumatzak-ek ipiniko dau musikea, jaitxoa egiteko.

Abenduak 27, zapatua

13:10etik aurrera, Kuadrilla Eguna. Karabie Gaztetxean. 13:10ean, poteo-busa; 15:10ean, fruta-bazkarie; 17:10ean, frutalimpiadak, 22:10ean, kontzertuak: Andoni Ollokiegi eta DJ Txaser. Txartelak salgai: Txoane, Atxeta eta Kresalan.

Abenduak 29, astelehena

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako haur parkea. Kiroldegian. 17:00etan, Txori Amorrutuek Tiragoma Txapelketea. Karabie Gaztetxean.

Abenduak 30, martitzena

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako haur parkea. Kiroldegian. 19:30ean, Gilkitxaro taldearen *Alperrek, tunanteak eta maleanteak* antzezlan. Karabie Gaztetxean.

Abenduak 31, eguaztena

12:30ean, Gabonetako XIV. Eneko

Zamalloa Memoriala lasterketea. Elizondotik hasita.

Urtailak 2, barikua

19:00etan, Harrera Elkartearen aurkezpena. Karabie Gaztetxean.

UBIDE

Abenduak 24, eguaztena

19:00etan, Olentzero plazan eta panpinari sua emon.

ZEANURI

Abenduak 19, barikua

19:00etan, Taberna ibiltaria; kantu-poteoa herriko tabernetan zehar.

Abenduak 22, astelehena

15:15ean, eskolako Gabonetako emonaldia. Eskolan.

Abenduak 23, martizena

10:30ean, Gabon kanta eskolako umeen eskutik. Plaza inguruan. 19:00etan, *ZTANDAP*: Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairen bakarriketak. Kultur Etxean.

Gazteak lagundu eta aholkatuteko
 ekimenak ipini ditu martxan
 mankomunidadeak

Laneratzeo orientazinoa eta aholkularitza psikologiko eta sexologikoa emoteaz gain, gurasoentzako orientazino saioa egingo da.

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 16 eta 29 urte bitarteko gazteei eta euren familiei zuzendutako Bizkaia Gazteak Arratia 2025 programea daukie martxan. Honen bitartez, gazteak "bizitzearen etapa honetan hainbat alderditan lagunduteko asmoz" lau ekimen dagoz martxan, guztiz doban. Mankomunidadeetik abenduaren 18an, 17:30etik 19:30era, egingo dan DBH4 eta 2. Batxilergoko ikasleen gurasoentzako orientazino saioa azpimarratu gura izan dabe: "Jardunaldi honetan, gazteen hezkuntza- eta lanbide-erabakietan laguntzeko estrategiak, zuen seme-alabei aukera akademikoa egiten laguntzeko tresna praktikoak eta DBHko 4. mailako eta 2. mailako Batxilergoko ikasleei etorkizuneko erabakietan laguntzeko estrategiak landuko dira". Izena 688 744 829 telefonoan edo <https://labur.eus/arratiamanko> helbidean emon daiteke.

Beste alde batetik, gazteen-tzako zein euren familientzako banakako aholkularitza zerbitzu bi dagoz martxan, *online* zein aurrez aurre egin daitekezanak.

Abenduak 24, eguaztena

17:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea. Herrian zehar.

Abenduak 26

19:00etan, *Gure etxeen segurtasuna, zer egin sute baten aurrean* berbaldia Bizkaiko suhiltzaileen eskutik. Kultur Etxean.

Abenduak 27, zapatua

11:30ean, umeentzako jolas eta tailerrak Panpox alkartegaz. 19:30ean, Ines Osinagaren kontzertua. Kultur Etxean.

Abenduak 28, domekea

19:00etan, Alize Mendizabal organu-jolearen *Bizkaiko hotsak* kontzertua. Andra Mari eleizan.

Abenduak 29, astelehena

11:00etan, bost urtetik 2. DBHra bitarteko ume eta gaztetxoek urtekerea Gasteizko izotz pista eta Gabonetako merkadura. 19:00etan, Sabin Intxaurraga



Batetik, 18 eta 29 urte bitartean lana bilatzeko edo ikasketakaz jarraituteko erantzunak behar izanez gero, Laneratzea eta ikasketak zerbitzua dago. 655 826 551 telefonoan edo orientazino-indibidualak@arratia.eus helbidean erantzuten dabe. Bestetik 16 eta 29 urte bitartekoen gaineko aholkularitza psikologiko eta sexologikoa be badago, "lotsa barik" eta "konfidentzialki" berba egiteko 655 826 551 telefonoan edo konsulta-gaztedi@arratia.eus-en eskatu daiteke.

gogoan, 15 urte omenaldia eta *Txillarreko sukaldaria* dokumental eta liburuaren aurkezpena Peio Rubio eta Asier Ibaibarriagaz.

Abenduak 30, martitzena

18:00etan, ume eta familientzako *Txuri-beltza da ta...!* ikuskizun musikatua Xabier Lizaso piano-joleagaz. Kultur Etxean.

Abenduak 31, eguaztena

11:30ean, San Silbestre lasterketea eta gero, barauskarria.

ZEBERIO

Abenduak 19, barikua

18:00etan, ballet ikuskizuna. Plazako Ermita Zaharrean. 19:00etan, pelota partiduak: Arhane Mendibil vs. Amaia Zarrabeitia, Bengoetxea-Larunbe vs. Goñi-Garcia. Gero, DJ Matxinada.

Abenduak 22, astelehena

17:00etan, 4-12 urteko umeentzako buruhandi tailerra. Eskola

Hausnarketarako *scape room-a*

"Partaidetza eta balioetan hezte" lantzeko, Arratiako gaztelekuetan *scape room* bat antolatu da talde lana, kontzeptu jakin batzuen barneratzea edo aniztasunaren gaineko hausnarketea egiteko helburuagaz. 16 eta 29 urte bitartekoentzako dago zuzenduta eta norbere herriko gaztelekuan informau daiteke. "Zientzialari talde batek makina bat eregi dau atzen 90 urteak ezabatuteko, nork suntsituko ahalko dau denporea amaitu baino lehen?".

Zaharreko txokoan. Izen-emotea hilaren 19a baino lehen, austarrikulturtaldea@gmail.com helbidean. 19:30ean, *Red Bull X-Alps 2025: Alpeak alderik alde oinez eta hegana* ikus-entzunezkoaren proiektazino. Plazako Ermita Zaharrean.

Abenduak 23, martitzena

11:00etan, egurrezko jolasak. Plazan.

Abenduak 24, eguaztena

17:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerea. Ermitabarritik hasita.

Abenduak 30, martitzena

11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

Abenduak 31, eguaztena

10:00etan, plazatik Tontorrandira mendi urtekerea.

Urtilak 2, barikua

11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

IGORRE

6 milioi eurotik gorako aurrekontua onartu dau Igorreko Udalak

"Gure eredua izan da aurrekontu errealistak egitea, Udalaren betebeharrak bete eta gura doguzan inbersinoak egiteko garaitikotik hartzea".



Erredakzinoa

Zemendiaren 27ko Osoko Bilkuran onartu zan Igorreko Udalaren 2026ko aurrekontua, EAJren aldeko sei boto eta EH Bilduren kontrako bost botogaz. 6.035.580 euroko aurrekontua izango da, Udaltutxaren igoerea aprobetxautu, 2025eko aurrekontuagaz konparatu ia % 2ko igoerea dauka aurrekontuak. Olatz Urkiza alkateak BEGITU azaldu dau, igoerea soldatetan eta batez be, kaleko garbiketan eta Kiroldegi zein futbol zelaiaren mantenimentu zerbitzuetan islatu dala. Horrezaz gainera, azpimarratu dau 2025eko aurrekontua erritmo onean bete dala, "abuztuan % 70ean egoan beteta, momentuz gure aurreikuspenetik ez dogu ezer be ez egin barik itxi baina inbersinoetan ezin izan dogu asko egin, aurrekontua ezin dalako beste modu batera bideratu".

Urkizak onartu dauanez, parte-hartze prozesuan ez da erantzun askorik egon, baina ekarpen asko osasunaren ingurukoak izan dira. Eguneke zentroa izan da eskatu dan gauzetariko bat eta Udalak On Egin egoan lokala alkillau dau (5.000 €) Aldundiaren EtxeTIC zerbitzua eskaini eta eguneke zentrorako proiektuak probetan hasteko (12.000 €). Gazteen-tzak aisialdirako ekintzak be eskatu dira baina alkateak defendidu dau, "herrian gauza asko daukaguz eta ez doguz erabilten".

Beste alde batetik, Urkizak azpimarratu dauz BideOn eskarrieko

zerbitzua berrezarteko 40.000-50.000 euro arteko partidea; Garbe eta Agarreko bide eta espazioak hobetu eta goiko frontoiko estalgia eregiteko 1.800.000 euroko kreditu-linea; merkatariei lagunduteko Bonodenda kanpainarako 40.000 euroak; eskolako ateak aldatu, Kiroldegiko frontoiko itoginak konpondu eta beste mantenu lanetarako 80.000 euroak; eta kirol alkatte (80.000 €) zein kultur alkatteentzako (40.000 €) laguntzak.

EH Bilduren kontrako botoa

Igorreko EH Bilduk Instagramen bideo baten bitartez azaldu dauanez, "igaz gobernu taldeak alkarlanerako borondatea erakutsi eban" eta abstenidu egin ziran. Aurten barritz, EH Bilduk "hasikeratik" ikusi dau "beste jarrera bat" eta salatu dabe euren proposamen nagusiak ez dirala kontuan hartu eta ez dabela "alkarlanerako benetako borondaterik erakutsi". EH Bilduk egindako eta EAJk 2026rako baztertutako proposamenen artean Arantzazurako eta Gezalako oinezkoentzako bideak egitea, bide publikoen inbentarioa egitea, auzoentzako 100.000 euroko partidea gordetea, etxebizitza hutsen inbentarioa egin eta alkiletako laguntzak emotea eta herrigunean komun publiko autogarbigarria egitea dagoz. Horrezaz gainera, salatu dabe adinekoentzako eguneke zentroaren beharra berehalakoa dala eta ezin dala atzeratu.

IGORRE

Igorreko Eguneke Zentroa imagnetan hasi dira adinekoak

Bizi batzordeak bultzatuta, bakartasuna eta dependentzia maila bajuko personentzako espaziorako prozesu parte-hartzailea hasi da.



txarrago, baina jarduerak egiteko gai diranentzako". Halanda be, askok "eguneke zentroa" izena estigmatizau ahal dala-ta, "aisi zentro" edo "entretenimentu zentro" deitu beharko zala adierazo eben: "Bestela igual, behar dauan jentea ez da joango". Bertan ariketa mental eta psikomotrizidadearen ingurukoak, tailerrak eta ariketa fisikoko saioak egin beharko zira-la imaginau eben. Mahaigainean egon zan beste kontu garrantzitsu bat izan zan, bertara adinekoek bazkalduten joateko aukerea izan behar dabela, bakartasunari aurre egiteko aukera lez.

Prozesuaren gaineko kexak

Beharizana dagoalakoagaz batzartutako guztiek bat egin bae-be, kexak be entzun ziran. Batetik, batzarrean udal ordezkari-rik egon ez zalako: "Normala ikusten dozue gu gaur hemen egonda oin udaletxean plenoa egotea? Hemen egon beharko leukie". Izan be, dudak egon ziran Udalaren asmoen gainean. Bestetik, Bizi batzordetik oin hiruzpalau urte egin zalako eskaria eta proposamen zerrendea. "30 orrialdeko informe bat egin genduan eta oin barriro hasi behar gara?", adierazo eban batzartutako batek. Gainera, proiektu pilotua aurrera aterateko zailtasunak ikusi ebezan, On Eginke lokala oso txikia dala-ta.

Erredakzinoa

Adinekoentzako eguneke zentro baten beharra oin urteak ipini eban mahaigainean Bizi Igorren 2030 batzordeak eta honetarako bidea abenduaren 10ean egin zan batzarrean zabaldu zan. Olatz Urkiza alkateak BEGITU azaldu dauanez, Igorreko Udalak Aldundiaren EtxeTIC, menpekotasuna dabenentzako dobako etxeko zaintza zerbitzurako bulego lez On Egin egoan lokala alkillau dau, Elexalden. Udalaren asmoa da, bertan eguneke zentroa izango danaren zerbitzu eta ekimenak be probetea -bizpauru urtez- eta gero, Jubi-

latuen Etxe alboko lokala barritzau eta behin betiko eguneke zentroa bertan eregitea. Baina, "hor sartzeko lanak 300.000 eurokoak izango ziran eta argi euki behar dogu hori behar dogula", adierazo dau Urkizak. 2026ko Udaltuturkontuetan 5.000 euroko partidea egin da lokala alkiletako eta proiektuagaz hasteko, 12.000 euro.

Abenduaren 10eko batzar irekian 27 jubiladu batu ziran etorkizuneko eguneke zentroa imagnetan hasteko. Bertan argi geratu zan, menpekotasun maila bajuko eta bakartasuna sufriduten daben adinekoentzako zentroa izan behar zala Igorreko: "Hobeto edo


ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

1.868 JARRAITZAILE

428 JARRAITZAILE

2.908 LAGUN

68 JARRAITZAILE



ZEANURI

Sabin Intxaurreagari omenaldia egingo jako bere heriotzearen 15. urteurrenean

Abenduaren 29an izango da Zeanuriko alkate eta EAko sortzaileetakoa izandakoa gogoan hartzeako ekitaldia.

Erredakzioa

2010eko abenduaren 27an hil zan Sabin Intxaurreaga Mendibil (Zeanuri, 1949) eta orduan be omenaldia egin jakon moduan, bere heriotzearen hamabosgarren urteurrenean omenaldia egingo jako politikariari. Hilaren 29an izango da omenaldia, 19:00etan Kultur Etxean. Intxaurreagak EAJn hasi eban bere ibilbide politikoa eta 1979an, frankismo osteko lehenengo Udal Hauteskundee-tan, Zeanuriko alkate izentau eben herritarrek. 1983an ostera, Carlos Garaikoetxea lehendakariaren idaz-kari personala izan zan 1986an biek EAJ alboratu eta Eusko Alkar-tasuna sortu eben arte. 1987 eta 1995 bitartean barriro bueltau zan Zeanuriko alkatetzara eta bitartean EAko Legebiltzarkide eta EUDELe-



ko Zuzendaritza Batzordeko kide eta lehendakariorde izan zan. Gerora, UEMAko Zuzendaritza Batzordeko kidea izan zan. 1999an

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu izentau eben eta 2001ean, Lurralde Antolamendu eta Ingurugiroko

sailburu, 2005era arte. 61 urtegaz hil zan Intxaurreaga, minbiziz.

Txillarreko sukaldaria dokumentala

Intxaurreagaren omenezko ekitaldi-toaren ostean, Kultur Etxean *Txillarreko sukaldaria* dokumentala proiektauko da eta bertan egongo dira Asier Ibaibarriaga eta Peio Rubio dokumentala eta liburua aurkeztuten. Ibaibarriaga proiektuaren egileetakoa bat da eta Peio Rubio protagonistea, 1999. urtean Elgoibarreko bere Txillarre baserrian, PSEko Paco Egea eta momentu haretan Batasunako Arnaldo Otegi jesarri ebazanak. Bertan kozinatu zan 2005-2006ko bake prozesua, gerora desarmatzea be ekarriko ebana. Dokumentala eta liburua, Peio Rubiok garai haretako batzarren gainean kontautakoetan dago oinarrituta.

UBIDE

La Union-eko autobusa Ubiden geratuteko 62 sinadura batu dira

Erredakzioa

Hilaren 1etik, Bilbo eta Gazteiz arteko La Unionen A/3712 linea ez da Ubiden geldituten. Zemendiaren 30ean ubideztarrek batzarra egin eben egoerea aztertuteko eta zerbitzua berrezarteko sinadura bilketea bultzatu eben. Ubideko alkate Zigor Iturriozek BEGITU azaldu dau 62 sinadura batu dirala. Atzen hauteskundeetako hautesle-erroldea 134 personakoa izan zala kontuan hartuta, % 46,27ak eskatu dau zerbitzua berrezartea. Udalak Arabako Foru Aldundiko garraio sailagaz mantenu dau komunikazioa eta handik azaldu deusie, La Unionek Ubiden geldituta denporea galtzean daua. Halanda be, Iturriozek azaldu dau, "guk kalkulau dogu hiru minutu dirala". Esku-hartzea egin dagian, sinadurak dipu-

tazinora bialdu ditu Ubideko Udalak. Horrezaz gainera, Iturriozek esan dauanez ubideztarrak pozik dagoz Otxandio-Ubide-Legutio eskaripeko autobus zerbitzua bultzatu dalako.



Gabon zoriontsuak eta urte barri on opa deusuegu!



GIBERRI

"Segurtasunik gaur egun ez dago inon be ez eta holan danez, sikanan gustokoena egitea"

Aritz Bengoa eta Imanol Iturrioz ahuntz-gaztaia ekoizten hasi dira Ubiden, Giberri martxan ipinteko traba asko topau baebezan be, lortu dabe fabrikako beharra itxi eta betidanik gustau jakienetik bizitea. Ubide gainean ikusten dan pabiloia altxau, alpina frantses errazako ehun bat ahuntz ekarri eta "erraz jateko gaztai bat, fina, publiko guztientzakoa" ekoizten hasi dira, bai freskoa bai ondua. Zeanurin Loli Leire eta Txoko Sagarnan; Areatzan Andikona eta Denda Barrin; Igorren Arrakala eta Rekalden; eta Diman Zuazonean daukiez salgai gaztaiak. Proiektuaren jaiotzaz, bidean topautako trabez, lan honek emoten dauzan poztasunez eta lehenengo sektorearen etorkizunaz egin deuskue berba Bengoa eta Iturriozek.

Erredakzinoa**Noiztik ezetuten dozue alkar eta zelan jaio zan proiektu honen idea?**

Aritz Bengoa: Ezetu bizi oso-tik egiten gara, herrikoak gara eta ganaduagaz be betidanik. Proiektuagaz koronabirusaren denporan edo hasi ginan pentsetan zeozer egin ahal zala. Holan "tontamente" joan ginan Abere-ra, Arkauten dagoan aholkularitza enpresa bat, kontu batzuk egin genduzan eta ikusi genduan egingarria zala. Bertan hartu genduan idea serioago bat.

Imanol Iturrioz: Bai, beti euki doguz ahuntzak eta baso bardinian botaten genduzan, beti joaten ginan batera ahuntzak ikusten eta bata besteari laguntan eta; beti batera bai.

Betidanik izan dozuez etxean, baina holango negozio bat hastea beste gauza bat da. Zer ba emon zenduen saltua?

A.B.: Atzenean polita da gustetan jatzunetik bizitea. Fabrikan ibiltan ginan biok eta ikusten genduan oingo fabrikako beharra ez zala oin dala 40 urtekoa. Oin edozein momentutan kanpora zoaz, fabrika zarratuten dabe edo ez dakit nongo herrialde batera mobiduten dabe. Ez genduan segurta-

sunik ikusten. Hau diferentea da. Ahuntzakaz eta gustura zabizan leku baten behar egitea politagoa da. Edadea euki genduan, 30-35 urte bitartean eta esan genduan: "Ointxe da momentua, oin ez badogu egiten, 50 urtegaz ez gara hasiko...".

I.I.: Eta oin be kontuz!

Lehenengo sektorea gaur egun ez da ba seguruena be ez eta...

I.I.: Ez, ez... Segurtasunik gaur egun ez dago inon be ez eta holan danez, sikanan ba gustokoena egitea.

A.B.: Hemen sikanan zuretzako egiten dozu behar, zure buruarentzako dirua aterateko, ez beste batentzako behar egiten.

Fabrikan segurtasun falta batzuk dagoz, hemen beste batzuk. Hau gorpuztuteko momentuan ze traba topau dozuez?

A.B.: Traba danak. Emoten genduan pausu bakoitzeko atzera beste bi emoten genduzan. Traba danak. Uretik hasita, argia... Danak!

I.I.: Danean bai, Udala, diputazioa... Ez egiteko puntuan egon gara lau edo bost bider. Askotan esan dogu, "ba traba hau ikusita ez dogu aurrera egingo". Pasau doguz holango "superobstaku-



Imanol Iturrioz eta Aritz Bengoa.

luak" lau edo bost handiak, eta txikiak... 40?

A.B.: Paper bat egiteko be, ezin dozu pentsau gaur eskatu eta datorren astean eukiko dozula. Bost hilebetera lortzean badozu be pozik. Eta hori presinoa sartuta, hara joanda, jenteari eskatzen.

Osterantzean ez dago modurik.

I.I.: Bai lotsagarria da. Egia da laguntzak dagozala baina hobeto trabak kenduko baleukiez eta laguntzarik ez emon.

Traba horreek, negozio honen ezaugarriakaitik edo gaurko sistema produktibotik dato?

A.B.: Nik uste dodana da guri hartzean deuskuela, ekoizle txikiari, ardi eta ahuntzakaz Euskal Herrian gabizan danori, Garcia Vaquero edo holango enpresa handi bat izango baginan moduan. Ez dakit zenbat idazkari-gaz, papalak egin eta eroateko...

Baina klaro, gu bi gara eta bion-
 tzako soldatea atera behar da; ez
 daukagu denporarik bion artean
 paper guztiak beteteko eta gero
 gainera, egin behar dan beharra
 egiteko. Hemen Euskal Herriko
 ganadutegi danak antzekoak
 izango dira, bat edo bi beharren.
 Pentsetan dabe makroenpresa
 bat garela edo.

Instituzinoetatik, zelan
 erraztu ahal da hau?

I.I.: Erraztu? Ba trabak kentzean.
 Batez be tramite pilo bat ken-
 tzean. Eta gero ba ez dakit, ez
 dira bakarrik guk daukaguzan
 trabak ze denda txikiek be traba
 pilo bat daukiez. Atzenean den-
 da txikiak desagertuten doaz eta
 hori be niretzako oso inportantea
 da. Azalera handiko komertzioak
 bakarrik geratuko dira, eurek ipi-
 niko deuskuez prezioak eta hor
 arrisku handi bat dago. Ez da
 bakarrik santotomasetan esatea,
 "begiratu zelango feria egin do-
 gun!", ba ez. Urtean zehar eta
 egunerokotasunean be dendak
 egon behar dira, jentea konzien-
 ziau... Sistema guztia da, ez da
 lehenengo sektoreko arazo bat.

A.B.: Nik pentsetan dodana da
 hilebete pasau behar dabela
 holango enpresa baten. Hemen,
 denda txiki baten, harategi ba-
 ten... Hilebete pasau, zelan ga-
 bizan ikusteko. Hor igual esango
 dabe, "ostra, hainbatetik erraztu
 edo lagundu behar jakie".

I.I.: Lagundu edo... bakean itxi!

A.B.: Hori, nik ez dot dana erraz
 ixtea eskatuten. Ze erraztasun
 guztiak emoten dozuzenean edo-
 zeinek montetan dau eta gero ez
 dago ganorarik. Baina... bata bes-
 tean atzean hainbesteko trabarik
 ipintea be...

Dana motza ez da izango ez?
 Poztasunak be emongo dauz
 honek.

I.I.: Bai, bai. Atzenean, baten
 batek gure gaztaia erosten
 dauanean eta oso gozo dagoala
 esaten bueltetan danean, egu-
 nerokotasuneko gauzak dira eta
 asko animetan dau. Gero zure
 airera zabiz hemen, beharrak egi-
 ten, gaur hau, biher beste gauza
 diferente bat. Ikusten dozu gau-
 zea aurrerantza doala. Fabrikakoa
 guztiz kontrakoa da.

A.B.: Atzenean guk lehen egiten
 genduana zan, fabrikan behar eta
 gero etxean lan hau. Hau bakarrik
 egin eta bertatik bizitea be, polita
 da.

I.I.: Ni hemen bertan bizi naz
 eta askotan etxeko zapatiletan be
 etorten naz. Hori be "la ostia" da,
 aldeko puntua.

Zelan ikusten dozue etorki-
 zuna, zelan datoz hurrengo
 urteak?

I.I.: Ba alde batetik nik uste dot,
 erreleborik ez dagoan arren, ba-
 ten batek ekoiztu beharko dauala
 janaria eta hor, itxaropen apur bat
 ikusten dot. Baina beste alde ba-
 tetik, zuhurtu be egin behar da.
 Ez da bakarrik atzetik ez datorrela
 jenterik. Datorren jentea formau
 barik dago eta transmisino asko
 galdu da, lursail bat euki behar
 dozu, dirua euki...

A.B.: Aprobetxau behar da oin
 gitxi gagozan momentuan, ez he-
 mendik hamar urtera jada inor ez
 dagoanean. Ze hasiko zara gero
 dana zerotik hasten? Erraztasun
 batzuk emon behar dira, datoza
 gazteei sikan. Badagoz gazteak,
 artzain eskolan aurten hamairu
 edo badagoz. Jentea badago be-
 har egiteko baina dirutza handiak
 sartu behar dira, prezioak asko
 igon dira: metala, egurra... Dana!
 Ezin zara bizi osoan beharren ibi-
 li, gastuak bakarrik ordainduteko.
 Soldatea be atera behar da he-
 mendik.



LAN PUBLIKOAK
 UR ETA SANEAMENTU SAREAK
 BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
 PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57

ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)



Errenten erradiografia: aberastasun arrakalak Arratia, Ubide eta Zeberio

Estadu mailako mila biztanletik gorako herrien artean, Zeanuri eta Zeberio errenta handiena daukien herrien TOP100-ean kokatuten dira eta eskualde mailan, Ubide eta Areatza dira pobreenak.


Erredakzioa

Saretzen ekimenagaz, TOKIKOMeko hedabideok eta EITBk Hego Euskal Herriko errenta arrakalen gaineko erreportajea argitaratu genduan zementian. Oin, BEGITUk Arratia, Ubide eta Zeberioko errenta datuak aztertu ditu, herriz herriko aberastasun arrakalak azaleratu eta eskualdearen maila ekonomikoaren gaineko ideia hobe bat egiteko. Gure eremua eskualde modura hartuta, Hego Euskal Herriko 33 eskualdeetatik, 12. postuan gagoz 17.240 eurogaz, batez besteko personako errenta sailkapenean (INE, 2022). Gorbelaidea (19.367 €), Plentzia-Mungia (19.058 €) eta Debagoiena (19.004 €) dira aberatsenak eta txiroenak, Araba zein Nafarroa hegoaldeko eskualdeak dira; Arabako Errioxa da atzena (12.661 €).

Batez beste, Arratia, Ubide eta Zeberioko bizilagunok 17.240 euroko errentea daukagu. Beraz, Hego Euskal Herriko batez beste-

koaren gainetik gagoz; 16.908 eurokoa da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako batez bestekoa. Baina eskualde gehienetan baino aberastasun gehiago dagoan arren, Arratia, Ubide eta Zeberio badagoz nabarmenduteko arrakalak be. Izan be, errenta personala kontuan hartuta, zeanuriztarrek ubideztarrek baino % 20,3 gehiagoko errentea daukie. Errenta familiarra kontau ezker, Ubide eta Artearen arteko desbardintasuna errenten % 32,77-koa da.

Esan moduan, gure eremuko personako errentea 17.240 eurokoa izan zan 2022an. Batez besteko horren azpitik Ubide da pobreena (15.254 €) eta gero Areatza (15.363 €), Igorre (15.494 €) eta Lemoa (16.091€) dagoz. Gaineratik barriz, Bedia (17.476 €), Arantzazu (18.147 €), Dima (18.301 €), Artea (18.561 €), Zeberio (18.668 €) eta 19.000 euroko langea gaudituten dauan bakararra, Zeanuri da 19.132 euroko errentegaz.



Jon Bernat Zubiri EHUko Lan Harreman fakultadeko Ekonomia Aplikatuko irakasleak azalduten dauenez, batez besteko datuak izanda, errenta altuek asko igoten dabe zenbatekoa. Beraz, batez be Zeanuri, Zeberio, Artea eta Diman bizi dira eskualdeko errenta altuko personak.

Errenten hazkunde arrakala
2016 eta 2022ko datuak alde-ratu ezker, BEGITUren eremuko errenta personalak % 20,4 hazi dira batez beste sei urtetan. Ubide, Areatza eta Igorre personako errenta bajuenak dabezan hiru herriak dira eta gainera, 2016tik 2022ra gitxien hasi diran herrien artean kokatuten dira; Igorre % 13,3, Areatza % 13,6, Ubide zeo-zer gehiago, % 17,8 eta Zeanuri % 19,3. Artea barriz, errenta altue-

nen hirugarren herria izan arren, errentak gitxien hazi diran herria da, %12,1. Errenten hazkunde-tasak % 20tik gora igon diran herriak Lemoa (% 23,1), Dima (% 24,1), Zeberio (% 25,7), Arantzazu (% 27,6) eta Bedia (% 28,4) dira hurrengoz hurrengo.

Familien errentea
Errenta personalakaz baino, herri bakoitxeko familien errentakaz arrakala ekonomikoak oindino gehiago nabarmenduten dira. Artea da batez besteko familia errenta handiena daukan herria, 47.782 eurogaz. Ubide barriz, atzen postuan mantendutena da hemen be, 32.124 eurogaz. Beraz, Arteako familien errentak Ubidekoenak baino % 32,77 altuagoak dira. Banakakoen errenta desbardintaz gain, arrakala hau etxe

bakotxean bizi diran persona kopuruak be baldintzatuten dau. Izan be, Ubiden 2,1 persona bizi dira batez beste etxebizitza bako-txean eta Artean 2,6. Holan, etxe bakoitxean persona gehiago bizi diralako aurreratuten dauz postuak Arteak, personen errentako lehenengo postuetan dagozan Zeanuri, Zeberio eta Dimagaz konparata.

Ubideren ostean, Areatzako familien errentak dira bigarren bajuenak (37.075€), gero Lemoakoak (38.894), Igorrekoak (39.894€), Bediakoak (42.118 €), Zeberioak (44.929 €), Arantzazukoak (45.778 €), Zeanurikoak (46.006 €) eta Dimakoak (46.515 €), Artea lehen postuan egonda. Tarteko herri guzti horreetan, 2,4 eta 2,5 persona artean bizi dira etxebizitza bakoitxean.



EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) abenduaren 20ra arte arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A



Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan gaua eta gosaria lagun birentzako.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

B

* GARENA

Dimako **Garena** jatetxean **Gurea** menua lagun birentzako.







Gorbeia erreferente da eskualdeko herritarrentzat, bizkaitarrentzat, euskal herritarrentzat, baita bisitarientzat be, bere nortasun natural eta kulturalagaitik. Baina arrakasta horrek be ondorioak ekarri dauz: leku batzuek saturazino puntuak izaten dabez eta, horregaitik, kudeaketa zorrotzagoa behar da. Egoera horrerri aurre egiteko, aurretiaz egindako gaitasun-azterketatik abiatutako hainbat gomendio mahai-gaineratu dira.



Neurri nagusietako bat da sarrerako kontrola indartzea: presino handiena jasaten daben guneeetan sarbideak arautu eta, behar izan ezkeru, mugatu. Era berean, ibilbideei jagokienez, egoera txarrean dagozan bideak konpontzea, kaltetutako batzuk aldi baterako ixtea eta seinalizazinoa indartzea proposatzen da, jenteari nondik ibili komeni dan argi erakusteko.

Beste lan-ildo inportante bat da bisitarien jarraipen zehatza egitea: zenbat etorten diran, ze ibilbide egiten daben, ze eragin daukien espazioan eta zein dan mantentze-lanen kostua. Datu horreek guztiak ezinbestekoak dira ebatzi egokiak hartzeako. Horretarako, ekokontagailuak jartzea aurreikusten da ibilbide batzuetan.

Gorbeia:

kudeaketa eredu orekatu eta arduratsu baterantz

Horrezaz gainera, bisitarientzako (herritarrak, txangozaleak, turistak...) portaera-kode erraza eta ikusgarria landu gura da, ingurua zaintzen laguntzeko. Turismo sustapena be bideratu nahi da Gorbeia baloratzen daben publikoetara, eta ez bakarrik argazki azkar baten bila etorten diranetara.

Gobernantzeari jagokonez, administrazioen arteko koordinazino egonkorragoa proposatzen da, eta lurraldeko bizilagunek euren ekarpenak egin ahal izateko parte-hartze espazio zabalagoak sortzea. Testuinguru honetan, ganaderuen ikuspegia be ezinbestekoa da, euren jardunak eta beharrianak Gorbeiaiko eguneroko bizitzaren parte diralako.

Neurri horreen guztien helburua da Gorbeia leku erakargarria eta abegitsua izaten jarraitzea, baina bere nortasuna eta oreka naturala arriskuan ipini barik. Hazten jarraitu leiken helmuga izatea, baina modu ordenatu eta arduratsuan.





	JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea	
	Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre	
	Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza	
	Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre	




649 979 115

g

inigoirua@begitu.eus

**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN**



*Dana hesi, dana muga,
hor gosetea, han guda,
bakerik ezin heldu ba...
Urte barria heldu da,
askatasunaren ura,
zabaldu dadin mundura!*

 **ZEANURI**



**Alkar maite, alkar jagon
Ez dekon horreri emon
Falta direnak gogoan aukinde
ingurukoakaz egon**

URTE BARRI ON!



**ZORIONAK
ETA URTE BARRI ON!**

begitu 



LASTERKETAK

Gabonetan be kirola,
mozorroak eta omenaldiak

Arantzazun II. Sansilbestrail mendi lasterketa umoretsua egingo da eta Lemoan, Eneko Zamalloaren omenezko lasterketea, besteak beste.

Erredakzinoa

Gabon Zahar egunean ohikoak izaten dira gurean mozorroak jantzi eta San Silbestreko lasterketak korridutea. Aurten, Arantzazu, Areatza, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Zeberion dagoz antolatuta jarduerak. Arantzazun pasau dan urtean emon eben San Silbestreko lasterketea mendi lasterketa bihurtuteko saltua eta aurtengoan be izango da holan. Abenduaren 27an egingo da II. Sansilbestrail, bost kilometro eta 300 metroko desnibeleko zirkuitu zirkularrean. Izen-emotea *kronoak.com* webgunean egin daiteke. Lasterketa bat baino, umorez hartzeako jai bat izango da menditik mozorrotuta arinetan ibiltea. Gainera, aurten be egongo da kontzertua iluntzean Herriko Tabernan, Santa Barbara rock talde baionarraren eskutik. Lemoan barriz, hamalagarren urtez omenduko dabe Eneko Zamalloa abenduaren 31n. Urtero lez, 12:30ean hasiko da, umeentzako pentsautako ibilbidea, 500 metrokoa. Gero, 12:45ean hasiko dira beste biak. 1.300 eta 4.000 metroko

lasterketak izango dira gazte eta nagusienak. Eneko Zamalloa lemoaztarra 2011ko abuztuan Gironan egoan, bere familiagaz batera. Bere jarduerarik gogokoena, galapan egitera urten zan baina kotxe batek jota hil zan. Ordutik urtero-urtero egiten jako omenalditxo Lemoan. Lasterketa berezi horreetaz gainera, abenduaren 31n egingo dira San Silbestreko lasterketa tradizionalak be. Igorren Goiko Plazan da zitea 11:00etan, ize-na emon eta ordu erdi beranduago adinaren araberako hiru ibilbideetako bat korriduteko; gero opariak zozketatuko dira. Zeanurin Joko Alai alkarteak antolatu dau 11:30ean urtenda heritik egingo dan lasterketea, gero barauskarria be egongo da. Zeberion lasterketearen orde, aurten Austarri Mendi Taldeak mendi urtekerea antolatu dau Tontorrandira, 10:00etan plazatik urtenda. Areatzan arrastiz, 17:30ean, urtengo da plazatik Laminok antolatutako IV. San Silbestre lasterketea. Diman barriz, mendi urtekerea egingo dabe goizez, 09:30ean Olarretan hasita, Arrietabasora.



Arantzazuko irudia goian eta Igorrekoa behean.

PELOTEA

Lau t'erdiko finala jokatuko dau Amaia Aldai pelotari dimoztarrak

Abenduaren 21ean jokatuko dau finala Gernikan, Enara Gaminderen kontra.

Erredakzinoa

Amai Aldaik lortu dau Emakume Master Cup zirkuituko aurtengo Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxako finalerako txartela. Gernikako Santanape frontoian izango da Enara Gaminde eta dimoztarraren arteko finala abenduaren 21ean. Inoz ikusi bako finala izango da Gaminde eta Aldairen artekoa. Aldai bere laugarren txapela irabazteko burrutuko da eta Gamindek barriz, Emakume Master Cup zirkuitutik faltau jakon txapel bakarra irabaztea izango dau helburu. Dimako pelotariak partidu bakarra irabazita lortu dau Gernikako finalerako txartela. Izan be, pasau dan urteko finalistea izateagaitik jarraian sartu zan atzen fasean, ligaxkea jokatu barik. Final-laurdena jokatu behar eban zemen-diaren 30ean baina Nazinoen



Ligan aurkaria lesionauta, bertan behera gelditu zan partidua. Finalaurrekoan barriz, abenduaren 7an Basaurin, Olatz Arrizabalaga izan eban aurrez aurre. Bardin-duta hasi zan lehia baina Aldaik BEGITUN azaldu dauanez, kantxan

gero eta gehiago gozatuten hasi zan. Bere onena atera eban Dimakoak eta Arrizabalaga ez zan bere mailan egon. Holan, 22-11 amaitu zan norgehiagokea. Beste aldean, Enara Gamindek 22-14 garaitu eban Goiuri Zabaleta.

PALEA

Elezkanok eta Nafarratek irabazi dabe Dimako I. Pala Txapelketea

Abenduaren 5ean jokatu zan atzen fasea eta txapeldunek 22-20 irabazi eben Zapiko neba-arreben kontra

Erredakzinoa

Zemendiaren 14an hasi zan jokatuten Dimako Txumulueta Pelota Klubak antolatutako Pala Txapelketearen lehenengo edizinoa. Zortzi bikotek hartu dabe parte eta moltso bitan antolatuta ligaxkea jokatu ostein, abenduaren 5ean jokatu ziran finalaurrekoak eta finala. Txapela Ander Elezkanok eta Oier Nafarratek eskuratu eben, finalean Araitz eta Kimetz Zapiko neba-arrebak 22-20 garaituta. Elezkanok nagusiak zozketautako otzarea be eroan eban etxera eta zapikotarrak azpitxapeldun izateaz gainera, saria jaso eben bikote mixtoan parte hartzearren. Abenduaren 5ean finalaurrekoak jokatu ziran lehenengo. Nafarrate eta Elezkanok, Peio Larrakoetxea eta Xabi Artaberri 18-12 irabazita egin eben aurre-ra; Zapiko neba-arrebek oster, 18-7 garaitu ebezan Xabier Garcia "Utxu" eta Xabi Pujana. Finala oster bai, lehiatua izan zan.



Nafarrate eta Elezkanok aurretik ibili ziran partidu osoan eta ondo kostata, baina zapikotarrek lortu eben 20-20 bardindutea. Es-kuan izan eben aurrez aurrekoari

bueltea emotea baina Elezkanok egindako tantu bategaz eta Araitz Zapikok kale eginda mantenidu zan markagailua Nafarrate eta Elezkanoren alde.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A taldea denporaldi itzela dabil egiten

Andrazkoen Arratia A taldeak 0-1 irabazi eban Real Sociedad C taldearen kontra hilaren 13an eta lidertzan dago. Gizonezkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik irabazi egin ebezan hilaren 13an jokaturako partiduak; gizonezkoen Arratia Bk osteragalduegin eban. Andrazkoen Arratia Bk irabazi egin eban etxetik kanpo domekan.



Andrazkoen Arratia Ako taldekideak Alaves B taldearen kontrako gola ospatzen.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak 0-1 irabazi eban hilaren 13an Zubietan Real Sociedad C taldearen kontra Ariane Blascok 68. minutuan sartutako golari esker. Lehen postuan egon arren min hartuta dagozan jokalar asko ditu Arratiak eta Realaren kontrako partiduan, aldaketa bi baino ez ebazan egin, barbarako. Aurreko jardunaldian bigarren postuan egoan Alaves B hartu eban Urbietan eta 1-0 irabazi eban. Arratiak

atzen sei partiduak jarraian irabazi ditu. Hamaika jardunaldiren ostean 25 puntu ditu Igorreko taldeak eta lidertzan dago. Datorren partidua hilaren 21ean jokaturako dau Urbietan Tolosa taldearen kontra, eguerdiko 12:00etan. Bigarren bueltako lehen partidua izango da. Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 14an jokatu eban etxetik kanpo bere aurretik dagoan Basauriko Kimuak B taldearen kontra eta 2-4 irabazi eban. Arratiarrak Uxue Aurtenetxeren gol

bategaz aurreratu ziran baina etxekoek bardintzea lortu eban; lehen zatia amaitu orduko osterala Alaitz Zelestinok 1 eta 2koa eta Aurtenetxek 1 eta 3koa sartu ebezan. Bigarren zatian etxekoek aldea txikitu eban 2 eta 3koa sartuta baina deskontuan Zelestinok arratiarren laugarrena sartu eban. Aurreko partidua husna bardindu eban Urbietan Elorrio B taldearen kontra. Hamar jardunaldiren ostean 20 puntu ditu Arratia Bk eta hirugarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokaturako

PELOTEA

Rekalde eta Bikuñak lautik lau galdu dabez

Erredakzinoa

Xabier Rekalde profesionalen artean bere lehenengo Binaakako B Serieko Txapelketea dabil jokaturen Iñigo Bikuñagaz. Banakako txapelketan Dimakoa fin ibili bazan be, oingoan Rekalde-Bikuña bikotea ez dabil ondo funtzionetan eta jokaturako lau partidua galdu ditue. Holan, playoff-ak jokatu gura badabez, geldituten jakiezan hamar jardun

naldietatik gitxienez bost irabazi behar izango ditue, aukeraren bat izateko. Atzen jardunaldi biak abenduaren 6an eta 12an jokatu dabez Rekalde eta Bikuñak. Lehenengoan Iker Salaberria eta Andoni Gaskueren kontra aritu ziran Zornotzan eta 22-13 galdu eban. Atzen jardunaldia barriz, Muskizen jokatu eban Unai Amiano eta Iosu Eskirozen aurka, 22-16 galdu eban dimoztarrak eta donostiarrak.



dau Ibaiondo Nerbioi taldearen kontra hilaren 20an, eguerdiko 12:55ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak hilaren 13an jokatu eban Urbietan Astrabuduako taldearen kontra eta 2-1 irabazi eban. Paul Garaigordobilek sartu eban lehen gola 8. minutuan eta Jon Ordeñanak bigarrena 62. minutuan; kanpokoan gola 90. minutuan heldu zan. Aurreko partidua 1-0 galdu eban etxetik kanpo Gatika taldearen kontra. Hamahiru jardunaldiren ostean 26 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarren postuan dago, igoera postuetan. Datorren partidua etxetik kanpo jokaturako dau 20-21eko astegoienean etxetik kanpo laugarren postuan dagoan Begoña A taldearen kontra. BEGITUk edizinoa zarratukeran zehaztu barik egoan eguna eta ordua.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 13an jokatu eban etxetik kanpo Elorrio A taldearen kontra eta 1-0 galdu eban. Aurreko partidua be galdu egin eban (4-1) etxetik kanpo Padura B taldearen kontra. Hamahiru jardunaldiren ostean 11 puntu ditu Arratia Bk eta hamalaugarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 20an jokaturako dau Urbietan Ezkurdi A taldearen kontra, arrastiko 18:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak hilaren 13an jokatu eban etxetik kanpo La Merced A taldearen kontra eta 0-2 irabazi eban. Golak lehen zatian heldu ziran; Xanti Kortak sartu eban lehenengoa 9. minutuan eta bigarrena Jon Casillasek 25. minutuan. Aurreko partidua be 2-0 irabazi eban Arlonagusian Acero taldearen kontra. Hamahiru jardunaldiren ostean 27 puntu ditu Lemoako Harrobik eta bosgarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 20an jokaturako dau Arlonagusian Umore Ona A talde liderraren kontra, arrastiko 17:00etan.

ZIKLO-KROSA

Podium bikotxa lortu eban Manu Quintanillak valentziar lurraldean

Abenduaren 6 eta 7an, Valentzian egin ziran

Espainiako Kopako

lasterketa bietan

lehenengo eta bigarren

postu bana lortu

ebazan txirrindulari

igorretarrak.

Erredakzinoa

Lehenengo lasterketan, zapa-tuakoan, igorretarrak ezetuten ez eban zirkuitu oso arin baten lortu eban bigarren postua 00:40:38 minutuko denporeagaz, Jordi Reñeren atzetik. Lasterketa honetan, nahiko urtekera txarra egin ebaladierazo eutsan BEGITUri Quintanillak baina lehenengo lau postuen artean kokatutea lortu eban. Atzen esprinterter heldu ziranen, atzen txirrindulariagaz topau ziran eta, nahiz eta Reñek atzen hau pasetea lortu, Quintanillak ezin izan eban hau aurreratu eta lasterketako bigarren postuan geratu zan.

Bigarren lasterketan barriz gauzak oso desbardinak izan ziran. Harritz eta harez betetako zirkuitua izan zan eta oso garrantzitsua zan lehenengoa urtetea beste txirrindulariei aurea hartu eta zati gatxenetan pilaketak ez harrapetako. Zapatuan moduan, Reñe eta Quintanilla izan ziran lasterketa buruak, baina oingo honetan bai, Quintanillak valentziarra garaitutea lortu eban 00:37:09 minutuko denporea eginda.

Quintanillak BEGITUri adierazo eutsanez, oso pozik dago astegoienean lortutako emaitzakaz, lasterketa horreetan munduko txirrindularirik onenetakoak egin ziralako.

Lazpita Bizkaiko Ziklo-kros Kopan

Quintanilla igorretarra Valentzian egon bazan be, Juan Lazpita txirrindulari dimoztarra Bizkaiko Koparen parte dan Zornotzako lasterketan egon zan. Abenduaren 7an, Tiritu Ziklista Elkartekoak, 00:43:43 minutuko denporeagaz, MASTER50/60ko bigarren postuan geratutea lortu eban, Ivan Lopez-en atzetik.

KONTZERTUA

Ines Osinagak kontzertua eskainiko dau Zeanurin

Gose taldeko trikitilaria izandakoa abenduaren 27an egongo da Zeanuriko Kultur Etxean, 19:30ean.

Erredakzinoa

Gabon sasoirako jarduera ugari antolatu ditu Zeanuriko Udalak eta tartean, Ines Osinaga (Arrasate, 1982) musikaria konbidatu dabe, bere atzen urteetako bakarkako ibilbidearen aletxoak Zeanurin erakusteko. Kultur Etxeko aretoan egingo da kontzertua hilaren 27an, 19:30ean. Atzen urteetan *Itsasoa da bide bakarra* proiektu artistikoan egon da murgilduta, kanta-bilduma, dokumentala eta liburua biltzean dituana; eta hau aurkeztuten dabil aretoz areto.

Osinaga akordeoiagaz hasi bazan be, laster egin eban trikitixara saltu eta Ekon taldeagaz rock-a probatu ostean, Gose taldea osatu eban 2005ean. Iñaki Bengoa eta Jon Zubiagagaz batera, hamar urtetan zazpi disko kaleratu eba-

zan taldeak eta 300 kontzertutik gora emon Euskal Herrian, Espainian, Estatu Batuetan, Japonian... Gaur Süne moduko musikariakaz modan dagoan trikitixearen eta musika elektronikoaren buztar-ketea egiten aitzindari izan zan Gose taldea.

Musika ekitaldiak abenduan

Zeanurin Gabon jaien bueltan antolatutako jardueren artean, musika ekitaldi ugari dagoz antolatuta. Abenduaren 19an kantu-poteoa 19:00etatik aurrera; 22an eskolako Gabon emonaldia 15:15ean; 23an eskolako umeen Gabonetako kantaldia 10:30ean; Ines Osinaga 27an; Alize Mendizabal organu-jolearen emonaldia 28an eleizan 19:00etan eta 30ean, txikerrentzako Xabier Lizaso piano-jolearen *Txuri beltza da ta...* ikuskizun musikatua, 18:00etan.



IPUINAK

Gabonetako bitxikeriak kontauko dauz May Gorostiagak Kotxepinen

Erredakzinoa

Abenduaren 17an, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean sei eta hamar urte bitarteko umeentzako *Gabonetako bitxikeriak* ipuin kontaketea egingo da, 18:30ean. Bertan, May Gorostiaga antzerkigile polifazetikoak Gabonen inguruko bitxikeria eta istorio ugari kontauko ditu. Gorostiagak eskarmentu handia dauka oholtza gainean, izan be, aktorea, idazlea, zuzendaria, irakaslea, titiriteroa, klown-a eta abar izandakoa da, bai eta oholtza

gaineko inprobizazinoko aditua.

Gabonetako bitxikeriak kontaketan, Gorostiagak jai honeen gaineko hainbat galdera erantzungo deusez umei: "Zergaitik ipinten doguz apaingarriak Gabonetan? Zer da zehazki opari bat? Non aurkitu daikegu munduko oparitako paperik handiena? Zer gertatuko da Olentzero eta Mari Domingi joaten diranean? Baina zer dala-ta hainbeste bitxikeria? Gabonen atzean dagozan istorioak ezetu gura dozuz? Zatoz entzutera!".

ABENDU KULTURALA

Abendu Kulturaleko bigarren hamabostaldian sartu da Zeberio

Lehen hamabostaldiko jarduerak pasauta, pelotea eta jantzak, Gabonetako umeentzako ekintzak eta Etxazo eta Barbatxaoko jaiak izango dira nagusi.

Erredakzinoa

Zeberioztarrak Abendu Kulturaleko bigarren hamabostaldian murgilduko dira hilaren 19tik aurrera. Barikuan ballet ikuskizuna, andra eta beterranoen pelota partiduak eta geroko jaitxoak, DJ Matxinadagaz egongo dira. Hurrengo astelehenean barriz umeentzako buruhandi tailerra eta *Red Bull X-Alps 2025: Alpeak alderik alde oinez eta hegaz* dokumental proiektuak dagoz programatuta. Horren ostean, Gabonetako ohiko ekintzak egingo dira, non protagonistak umeak izango diran. Horrezaz gainera, Etxazoko sanestebanak eta Barbatxaoko santomasak ospatuko dira.

Abenduak 19, barikua
18:00etan, ballet ikuskizuna. Plazako Ermita Zaharrean.

19:00etan, pelota partiduak: Arhane Mendibil vs. Amaia Zarra-beitia, Bengoetxea-Larunbe vs. Goñi-Garcia. Gero, DJ Matxinada.

Abenduak 22, astelehena
17:00etan, 4-12 urteko umeentzako buruhandi tailerra. Eskola Zaharreko txokoan. Izen-emotea abenduaren 19a baino lehen, *austarrrikulturtaldea@gmail.com* helbidean.
19:30ean, *Red Bull X-Alps 2025: Alpeak alderik alde oinez eta hegaz* ikus-entzunezkoaren proiektuak. Plazako Ermita Zaharrean.

Abenduak 23, martitzena
11:00etan, egurrezko jolasak. Plazan.

Abenduak 24, eguaztena
17:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerea. Ermita-

barritik hasita.

Abenduak 26, barikua
12:00etan, Etxazoko San Esteban jaiak: mezea, barauskarria eta herri kirolak. Tubi, Jon Loiola eta Irati Astondoa.

Abenduak 29, astelehena
12:00etan, Barbatxaoko Santomas Zaharraren jaiak: mezea eta barauskarria.

Abenduak 30, martitzena
11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

Abenduak 31, eguaztena
10:00etan, plazatik Tontorrandira mendi urtekerea.

Urtailak 2, barikua
11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

IRAKURLE TXOKOA

Miren Amurizaren bigarren eleberria dakar Arteako Irakurleen Txokoak

Erredakzinoa

Abenduaren 19an egingo da hileko Arteako Irakurleen Txokoko saioa, 19:00etan Kultur Etxean. Hilero lez, Alaine Agirre idazleak gidatuko dau literatura saioa eta oingoan, Miren Amurizaren *Pleibak* (Susa, 2024) nobelea aurke-ratu dau. Amurizaren bigarren eleberria da *Pleibak* eta 2000. hamarkadan girotutako nerabe biren arteko harremanaren kronika da. "Bizitzako fase intenso horren erretratatzeko bat da, kontraste handiko giroetan gertatzen

dana", inoan Amurizak lanaren aurkezpenean.

Izan be, baserri mundua kaleagaz, lokalakaz eta gaztetxeakaz buztartuten da, besteak beste. Amurizak bere nerabetasunean bizi izan eban girora hurbilduteko, orduko musikea, pelikula eta telesailak, jaten ziran gozokiak eta edaten ziran "txarrikeriak" gogoratu ditu liburuan. Eta jada pasau-tako mundu honetan, lagun biren arteko urruntze prozesua kontetan dau: "Batak NON diskotekara joan gura dau, besteak SEGIren manifara".



IPUINAK

Liburu maleta ibiltariaren beste saio bat egingo da Bedian

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 24an Liburute-gien Eguna ospatuteko egon zan Amaia Egidazu Bedia umeakaz eta oin, abenduaren 22an, barriro bueltauko da *Liburu maleta ibiltariagaz*. Ludotekan egingo da saioa 17:30ean eta Gabonetako ipuinak landuko ditu Egidazuk umeakaz. Maletatik liburuak atera eta Gabonetako ipuinetan murgilduko dau Ludotekea.

Ipuin eta istorioak entzun bakarrik ez, emozioa emon eta irudimena sustatuteko helburuagaz, umeek fantasiakzko pertsonaiei bizi emoteko aukerea izango dabe. "Material desbardinak eskuartean, sorkuntza lana egiteko unea izango dogu ipuinetako pertsonaiek lantzen", dinoe antolatzaileek. Izan be, literatura bakarrik ez, adierazpen artistikoa be buztartuten da tailerrotan.

KONTZERTUAK

Salgai dagoz
III. Urte Barri
Oi! jaialdirako
sarrerak

Erredakzinoa

Joandako urtailean Igorreko Kiñu Gaztetxea bete-beteta egindako edizino arrakastatsuaren ostean, aurten be 2026ko denporaldi musikolari ondoetorria egiteko Urte Barri Oi! ospatuko da. Urtailaren 17an egingo da jaialdia eta aurten konbidautako taldeak Kaos Urbano, Fitoskins, Attürri, No Limits, MadSkins, Nekktar eta Aurrez Aurre dira, kontzertuen ostean egongo dan DJ ChicasBeat-ez gainera. Sarrerak Igorreko Axular Herriko Tabernan dagoz salgai daborduko, 15 eurotan, eta erritmo onean dabiz saltzean.

Atzen bi edizinoetan lez, Urte Barri Oi!-k punk-rock eta oi! doinuak dakarz Igorrera. Kaos Urbano talde madrildarra da kartelburua. 1996tik dago taldea martxan eta estadu mailan, punkoi talde entzutetsuenetarikoa da gaur egun be. Gainontzeko talde guztiak, euskal herritarrek dira: Algortatik MadSkins, Durangaldetik Nekktar, Iruñatik Attürri, Goierritik Aurrez Aurre, Bergararik No Limits, Elorriotik Fitoskins eta Arrasate-Bogotatik DJ ChicasBeat. Fitoskins-ek gainera, Urte Barri Oi!-ko lehenengo edizinoa zabaldu eban taldeak, *Umiltasuna* diskoa aurkeztuko dau Kiñun.

ANTZERKIA

La llamaban loca antzezlanadakar Lasarte Aretoak

1970. hamarkadako Bilbon girotutako istorioak andra modernoak eta tradizionalak ipinten ditu aurrez aurre, umorearen bitartez.

Erredakzinoa

Abenduaren 27an, Cid FCA Produzioak eta Aitato Produzioak konpainiek ekoiztutako *La llamaban loca* antzezlanataularatuko da Igorreko Kultur Etxean, 19:30ean. Urietako andra modernoak eta herrietatik heldutako andra tradizionalak alderatuten dituan umorezko obrea Gurutze Beitiak zuzendu dau, testua Txemi Parrarena da eta jatorrizko idea, Jon Marinena. Protagonistak barriz, Karmele Larrinaga eta Gemma Martinez aktoreek gorpuztuten dabez oholtza gainean. Istorioa 1970. hamarkadako

Bilbon dago girotuta. Rosa andra moderno, azkar eta independientea da, idazkari moduan behar egiten dauana. Fortunata barriz, Espainiako Torralbilla herritik heldu barri dan andra tradizionala da. Batera lanean hasi eta lagunak egingo dira. Baina Rosari Fortunataren herriko ohitura atzerakoi eta aurreretxidunak nekagarriak irudituten jakoz, eta Fortunatak, barriz, ez ditu ulertuten Rosak dituan itxurakeri eta bitxikeriak. Desbardintasun horreek nahasmen eta egoera barregarri amaibakoak eragingo dabez bikote berezi horren eguneroko bizimoduan.



BERTSOLARITZEA

Arratiarrak BBK Sariketako azpitzapeldun eta saridun

Finalean ordezkaritza arratiarra eukan Etazetak taldeak irabazi ez baeban be, Iradi Barrenetxeak txapelketako kantakera onenaren saria eskuratu eban.

Erredakzinoa

Abenduaren 4an jokatu zan Bertsolari Gazteen 33. BBK Sariketako finala Zornotzako Zelaieta aretoan. A mailan Oizpeko pantolluk eta Etazetak taldeak aritu ziran eta B mailan, Zerobi eta Bizkaiko kopla gaztiekin taldeak. Etazetak taldean Aiala Irurtia arantzazuarra eta Ekhi Zuluaga igorreztarra egozan, Emile Zabala mungiarragaz. Irabazleak ez ziran arratiarrak izan, Bizkaiko kopla gaztiekin eta Oizpeko pantolluk baino.

Holan, BBK sariketako hogeta hirugarren edizinoan irabazleak Haizea Rotaetxe, Malen Ibarzabal eta Jon Abasolo A mailan; eta Bittor Altube eta Janire Arrizabala B mailan izan ziran. Irabazlearen artean arratiarrik egon ez bazan be eta Txikitin parian taldea finalera ailegau ez zan arren, Iradi Barrenetxea arteaztarrek txapelketako kantakera onenaren saria jaso eban. Unai Iturriaga Zugaza-Artaza bertsolari, idazle eta sortzaileak egindako ilustrazinoa izan zan saria.



DUNBA

Arteako umeek Gau Baltza ospatu eben

Urri bigarrenaren 31n, euskal ohiturea jarraituz, kokomarroz mozorrotu eta bildurrak erre ebezan.

Arteako eskolako 3. zikloko ikasleak

Gau Baltz egunean, Arteako ume eta irakasleak kokomarroz mozorrotu ziran. Euskal Herriko ohiturea ospatu eben. Eskolea apainduta egoan eta umeek arpegiak margoztu, istorio bildurgarriak kontau, suan bildurrak erre eta bertsoak kantau ebezan.

Urri bigarrenaren 31n, barikua, Arratia HLHI eskolan, Arteako umeek eta eskolako irakasleek Gau Baltza ospatu eben. Ume zein irakasleak Kokomarroz mozorrotuta etorri ziran, etxeko trapu eta erropa zaharrakaz jantzita.



Irakasleak izan ziran lehenengoak eskolan, eta umeek panderoa eta trikitixa jotzen egin eutseen harrerea. Gero, giza-katea egin da eta musikearen erritmoan klaseetan sartu ziran. Mozorroagaz amaituteko, umeek arpegiak margoztu ebezan, kokomarroen begi eta ahoak izateko.

Arpegiak margoztuta, umeak eskolako liburutegira joan ziran. Baina ez zan betiko liburutegia, bildurrezkoa baino. Kandelak, kalabazak, mozoiloak, musikea, orein baten burua eta abar egozan liburutegian. Kokomarroz jantzitako irakasle batek munstro baten gainera istorioa kontau eban ikasleak bildurtuz, txikerrenak bai baina 3. zikloko ikasleak ez ziran bildurtu. Horren ostean, gelan jantzan egin eben ikasleek.

Honen ostean, eskolako sa-

rerreran sua egoan isiotuta. Ikasle zein irakasleek euren bildurrak orri baten idatzi ebezan. Gero, paper zatiak sutara bota ebezan, bildurrak erre eta kentzeako. Batzuk lortu eben bildurrak kentzea, baina beste batzuk ez dira desagertu. Hau amaituta, ikasleak klaseran bueltatu ziran tailerrak egitera. Bakotzak kristalezko pote bat apaindu, potea eskegiteko soka bat lotu eta barruan kandela bat ipini eben, zutargi bildurgarri bat eginaz. Atzenik, ikasle guztiak eskola sarreran batu eta bertso bat kantau eben. Egun biribila izan zan eta irakasle zein umeek asko gozatu eben eguna.

AGENDEA

ABENDUAK 15
ARANTZAZU

Hilaren 23ra arte, 3-17 urte bitartekoak abenduaren 29an BECeko UGP-PINera joateko izen-emotea. Udaletxean. HHkoak gurasoakaz joan behar dira.

Hilaren 30era arte, urtailaren 3an Azpeitiara Burdinbidearen Euskal Museoara eta Loiolako Santutegirako urtekerearen izen-emotea. Bazkaria 30 euro (umeentzako menua aukeran).

AREATZA

Urtailaren 11ra arte Bonodenda kanpaina Areatzako komertzioetan.

ARTEA

Xerka, euskal landa-eremuko LGBTIQ + komunitatearen istorio eta erretratu en erakusketea 17ra arte. Kultur Etxean.

Hilaren 19ra arte, 2013-2020 urte bitartekoak abenduaren 29an UGP-PINera joateko izen-emotea udaletxean.

ARRATIA

Hilaren 31rarte bialdu daitez lanak IV. Mikroipuin Txapelketarako *arratia_berbalagun@aek.eus* helbidera. Gaia librea da, 50-100 berba bitarteko ipuinak.

Norbere zaintzarako estrategiak ikastarorako izen-emotea, urtailaren 10era arte 94 631 17 17 telefonoan (AUM). Ikastaroaren saioak: urtailaren 14, 21 eta 28an; zezeilaren 4, 11 eta 18an, 17:30etik 19:00etara.

BEDIA

Martiaren 14an izango dan Kolazino Mendi Egune ko lasterketarako izen-emotea zabalik martiaren 1era arte, *sportmaniacs.com* helbidean.

Hilaren 18ra arte, Baqueirara eskietan joateko urtekerarako (urtailak 23-25) izen-emotea. Bebetekan 16:30etik 19:30era.

IGORRE

Hilaren 18ra arte, Arratiako Frontenis Txapelketarako izen-emotea, 648 282 293 edo 640 073 000 telefonoetan. Txapelketa egunak abenduak 20 eta 21.

LEMOA

Hilaren 24ra arte, 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, Olentzero eta Mari Domingiri gutunak bidaltzeko postontzia. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen emonaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

ABENDUAK 16
BEDIA

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen Gabonetako kontzertua. Eleizan.

DIMA

Dimagia. 17:00etan, haurrentzako magia tailerra; 18:30ean, helduentzako magia tailerra. Tor magoaren eskutik.

Abenduaren 21era arte, *Magiako kartel historikoak* eta *Historiako magorik handienak* erakusketak ikusgai.

IGORRE

Hilaren 30era arte, Maria Antonia Torresen argazki erakusketea. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00etan, EH Bilduren auzo bilerea Urkizu eta Garakoiko auzotarrakaz. Urkizuko ermitan.

UBIDE

Arrastiz, hondakin zoosanitarioen bilketea Urduñako Almacenes Ruiz Sarachagan.

ABENDUAK 17
BEDIA

17:15etik 18:45era, Gabonetako

apaingarriak egiteko tailerra. Ludotekan. Gero, kalean apaingarriak herritarrei banatu.

IGORRE

18:00etan eta 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua. Lasarte Aretoan.

DIMA

Dimagia. 17:30ean, Arratiako Magoen Topalekua: *Txoko magikoak*. Frontoi txikitik.

LEMOA

18:30ean, *Gabonetako bitxikeriak* ipuin kontaketea. Kotxepin Kultur Etxean.

ABENDUAK 18
ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Goizez, hondakin zoosanitarioen bilketea Lemoako Lur2000-n.

18:00etan, Zaztaparrak-en 30. urteurrena: argazkia Zaztapar kideakaz eta komunitateko jenteagaz Ubideko plazan; 18:20an, Zeanuriko plazan, 18:40an, Areatzako udaletxeko arkupeetan; 19:00etan, Arteako plazan eta 19:30ean, Zeberioko plazan.

DIMA

Dimagia. 17:00etan, haurrentzako magia tailerra; 18:30ean, helduentzako magia tailerra. Tor magoaren eskutik.

18:30ean, Rafa Ugaldere n *Hizkuntzak hiltzen direnean* berbaldia. Jubiladuen lokalean.

IGORRE

17:30etik 19:30era, Arratiako Udalen Mankomunitatearen Gaztedi Arratia proiektuko DBH4 eta Batxilergoko gazteen gurasoentzako orientazino jardunaldia: *Etorkizuna lagunduz: Zure seme-alabei erabakietan laguntzeko tresnak*. Izen-emotea *https://labur.eus/arratiamanko* galdetegian.

Urtailaren 7ra arte, Bizkaiko ondarearen gaineko erakusketea. Elexalde kalean.

LEMOA

17:30ean, Arratiako Belaunaldien Arteko Denboraren Bankua. Gabonetako eskulanak heldu eta umeentzako. Kultur Etxean. Harremanetan ipinteko 688 766 302 edo *denboraren-bankua@arratia.eus*.

18:00etan, herriko bizilagunei harrerea Udalaren partetik: ondoetorria, udalerraren aukezpena eta kopaua. Udaletxean.

ABENDUAK 19
ARRATIA

18:00etan, Zaztaparrak-en 30. urteurrena: argazkia zaztapar kideakaz eta komunitateko jenteagaz Bediako plazan; 18:20an, Lemoako Ludotekako parkean; 18:40an, Dimako frontoi txikian, 19:00etan, Arantzazuko plazan eta 19:30ean, Igorreko Kultur Etxeko parkean.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa; Miren Amurizaren *Pleibak*, idazleagaz eta Alaine Agirregaz. Kultur Etxean.

19:00etan, Gabon kantak, Mikel Deuna Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak

antolatuta.

BEDIA

17:30ean, Gabon postalen zein birziklautako materialakaz egindako Gabon zugatzen erakusketea; 18:00etan, Gabon postalen zein birziklautako materialakaz egindako Gabon zugatzen lehiaketetako sari banaketak; 19:00etan, Gabonetako argiak isiotu, txoripana, edariak, musikea... Plazan.

DIMA

Dimagia. 16:30ean, tailerretan parte hartutakoen magia emonaldia; 19:00etan, Tor magoaren emonaldia. 21:30ean, Alain magoaren *Hil edo ez hil* heriotza eta doluaren gaineko emonaldia (+16 urte).

LEMOA

19:30ean, Gabonetako poteoa. Skapaie Elektrotxaranga. Txoanetik hasita.

ZEANURI

19:00etan, Taberna ibiltaria; kantu-poteoa herriko tabernetan zehar.

ZEBERIO

18:00etan, ballet ikuskizuna. Plazako Ermita Zaharrean.

19:00etan, pelota partidua k: Arhane Mendibil vs. Amaia Zarrabeitia, Bengoetxea-Larunbe vs. Gofi-Garcia. Gero, DJ Matxinada.

ABENDUAK 20
AREATZA

09:30ean, Turroi eguna, bazkideentzako. Ubide-Siskina-Harrikurutze koba-Ubide (izen-emotea hilaren 17ra arte 627 021 082 edo 653 018 167 telefonoetan). Eleiz portaletik urtenda.

DIMA

Dimagia. 12:30ean, Walas magoaren *Gertutik ikusteko magia*.

IGORRE

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua. Lasarte Aretoan.

Arratiako Frontenis Txapelketako partidua k. Kirold egian.

ABENDUAK 21
DIMA

Dimagia. 17:30ean, Edu magoaren *Zu zara magoa*.

IGORRE

17:00etan, zinea: *Olivia y el terremoto invisible*; 19:30ean, *La cena*.

Arratiako Frontenis Txapelketako partidua k. Kirold egian.

ABENDUAK 22
ARTEA

Oin eta behatzen estetika zerbitzua, hitzordua hartzeako 615 747 050 (Mari Cruz).

BEDIA

17:30ean, Amaia Egidazu ipuin kontalariaren *Liburu maleta ibiltaria*. Ludotekan.

DIMA

Mendi martxea, Sopelatik Plentziara.

ZEANURI

15:15ean, eskolako Gabonetako emonaldia. Eskolan.

ZEBERIO

17:00etan, 4-12 urteko umeentzako buruhandi tailerra. Eskola Zaharreko txokoan. Izen-emotea hilaren 19a baino lehen, *austarrikulturtaldea@gmail.com* helbidean.

19:30ean, *Red Bull X-Alps 2025: Alpeak alderik alde oinez eta hegan* ikus-entzunezkoaren proiektzinoa. Plazako Ermita Zaharrean.

ABENDUAK 23
AREATZA

19:00etan, *Palestina: aliantzak eta estrategiak genozidioaren aurrean-Palestina: alianzas y estrategias frente al genocidio*. Gurutze Morado Ibargutxiren (Sumud Global Flotilla) eta Reem Dandan-en (Palestinarekiko Erantzukizuna Plataforma) berbaldia. Elebitan. Udaletxean.

ARTEA

Oin eta behatzen estetika zerbitzua, hitzordua hartzeako 615 747 050 (Mari Cruz).

DIMA

Arrastiz, Ludotekea margoztu.

ZEANURI

10:30ean, Gabon kantak eskolako umeen eskutik. Plaza inguruan.

19:00etan, *ZTANDAP*: Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairen bakarriketak. Kultur Etxean.

ZEBERIO

11:00etan, egurrezko jolasak. Plazan.

ABENDUAK 24
ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Olentzero eta Mari Domingiren etorrerea. Ikusi 6. eta 7. orrialdeak.

ABENDUAK 26
DIMA

18:00etan, Bea Egizabalen *Gregoria* feminismoaren gaineko bakarriketa umoretsua. Eskolako kamaran.

IGORRE

Afari Antinuklearra, Haginke eta Orratzak-ek antolatuta. 19:30ean, *Familia nuklearra ezbaian: biziteko beste modu batzuk irudikatuten* solasaldia; 21:00etan, afaria (txartelak Axularren); 22:00etan, afaloste umoretsua; 23:00etan, MJ Lumatzak.

16:00etatik 20:00etara, Gabonetako Kiro l Kanpua (izena emon behar izan da).

LEMOA

19:00etan, *Sorgina banaiz* dokumentala Asisko Urmenetagaz. Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

19:00etan, *Gure etxeen segurtasuna, zer egin sute baten aurrean* berbaldia Bizkaiko suhiltzaileen eskutik. Kultur Etxean.

ZEBERIO

12:00etan, Etxazoko San Esteban jaia: mezea, barauskarria eta herri kirolak.

ABENDUAK 27
ARANTZAZU

16:00etan, Il. Sansilbestrail moztortutako mendi lasterketea (5 km eta 300 m desnibela). Izen-emotea alde z aurretik *kronoak.com* helbidean.

21:30ean, Santa Barbara taldearen kontzertua. Herriko Tabernan.

ARTEA

17:00etan, orientazino proba herrikoia.

DIMA

12:00etan, Txipli Txapla Otxotea koruaren kantaldia. Piedadeko ermitan.

IGORRE

19:30ean, *La llamaban loca* antzezlan a. Lasarte Aretoan.

LEMOA

13:10etik aurrera, Kuadrilla Eguna. Karabie

Gaztetxean.

ZEANURI

11:30ean, umeentzako jolas eta tailerrak Panpox alkarteagaz.

19:30ean, Ines Osinagaren kontzertua. Kultur Etxean.

ABENDUAK 28
ARANTZAZU

18:00etan, *Gau bat Barry Manleyrekin* bakarriketea, Barry Barrez umoregilearen eskutik. Kultur Gunean.

AREATZA

18:00etan, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren bigarren emonaldia. Udaleko Areto Nagusian.

ARTEA

12:00etan, Aritxoi magoa. Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea: *El mago de la Ciudad Esmeralda*; 19:30ean, *Bugonia*.

ZEANURI

19:00etan, Alize Mendizabal organu-jolearen *Bizkaiko hotsak* kontzertua. Andra Mari eleizan.

ABENDUAK 29
ARTEA

10:00etatik 18:00etara, 2013-2020 bitartean jaiotakoentzako urteketekerea UGP-PINera. Izen-emotea abenduaren 19ra arte udaletxean.

IGORRE

16:00etatik 20:00etara, Gabonetako Kiro l Kanpua (izena emon behar izan da).

LEMOA

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Umeentzako Gabonetako Parkea. Kirold egian.

17:00etan, Txori Amorrutuek Tiragoma Txapelketea. Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

11:00etan, bost urtetik 2. DBHra bitarteko ume eta gaztetxo en urtekerea Gasteizko izotz pista eta Gabonetako merkadura.

19:00etan, *Sabin Intxaurruga gogoan, 15 urte* omenaldia eta *Txillarreko sukaldaria* dokumental eta liburuaren aurkezpena Peio Rubio eta Asier Ibaibarriagagaz.

ZEBERIO

12:00etan, Barbatxaoko Santomas Zaharren jaia: mezea eta barauskarria.

ABENDUAK 30
AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz. Eleizan.

IGORRE

16:00etatik 20:00etara, Gabonetako Kiro l Kanpua (izena emon behar izan da).

LEMOA

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Umeentzako Gabonetako Parkea. Kirold egian.

19:30ean, Gilkitxaro taldearen *Alperrak, tunanteak eta maleanteak* antzezlan a. Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

18:00etan, ume eta familientzako *Txuri-belta da ta...!* ikuskizun musikatua Xabier Lizaso piano-joleagaz. Kultur Etxean.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

ABENDUAK 31
ARRATIA/ZEBERIO

San Silbestre lasterketak eta mendi urtekerak. Ikusi egitarauak 6. eta 7. orrialdeetan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUko ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak

emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebtxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA GABIZ

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienetarako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:


1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La llamaban loca* antzezlanerako.

Jabi Lamadrid (Dima)
 Aiala Landajo (Igorre)



2 Bizkaiko Bertsozale Elkartek emondako sarrera bi Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako.

Joseba Larrakoetxea (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



OPARI BONUAK

— 2025 —

OPARITU ONDOIZATEA

*Sartu gure webgunean, aukeratu
opari bonua, inprimatu eta listo!*

ZIRKUITU
TERMALAK

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

EGONALDIAK

HOTELEAN

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

25 €tik aurrera

hotelbalnearioareatza.com

hotelbalneariorduna.com

